


25
hh
hik hasi **URTE**

Hatsa Batzarrari elkarrizketa
Jolastu, amestu, eraldatu
Nola birplanteatu aurtengo mozorroak?
Arte-hezkuntza bidelagun
Hezkuntza Plazara ekimena
Haurrak migratzaileen bidaide
Paul Bilbao

254





HANDIRA JOKATZERA



Ikasi irakurtzen OILOAREKIN eta SAGUAREKIN

6 urtetik gorako haurrentzat,
irakurtzen dakien norbaitek lagunduta irakurtzeko
liburu umoretsu eta orijinal bat.



Bisitaria

Oiloak gaitan satean daude hastanak. Egoa esan, inoz er e. Aterik galeko oihag huan lera da, eta ez da errotu aterik, galeko oihag huan bista egiera jonea. Baseritara eperditu jatean da. Aterko hat ireki, eta oiloak goizean errotuko arantzaz hartzen du. Baina baseritara ez da oso jitorra. Ez du inoz ezer esaten. Ez du inoz esaten "Ikasi esko arantzaz" edo hartzelakirik.

Baseritara, baseritara gaito dagenean, haren bilobak errotzen du arantzaz hurren. Baseritara bilobak, gaito errotu, oihag huan errotu da. Baina oiloak ez du inoz errotu. Ezan ere, baseritara bilobak hurren errotu da. Oihari huan errotu dion bilobak, baseritara ez hurren bilobak dira. Baina ego esan, oihari huan hurren gaito ategitok errotzen zaitza gaito "Baseritara".

halako batean, animalia bat agertu da sagu bat sagu bat bere alategian oiloak ez du ulertzen **noia sartu zara nire alategian?**

saguak seinatu egin du zutobea bat dago esan du hortik sartu naiz eta horretatik naiz hona enbarazu egiten badizut berehala pango naiz

ez esan du oiloak berehala ez duzu enbarazu egiten pazten naiz hemen zaudelako. **getitu nirekin pixka bat**



saguak barre egin, eta oihari begiratu dio arantzaz begiratu dio inoz ez du oihari bat hain hurbiletik ikusi non daude zure belarrak? gaitetu dio ez duzu belarrak entzuten al ditzazu?

oiloak barre egin du bai galdara bittak saguan begiratu dio belarrak bat du bi belarrak bittak dira baina hurbile ditu

rik ez du belarrak esan du oiloak baina oso errotu entzuten du oiloak ez du belarrak behar ezaten duzun gaito entzuten du beraz? gaitetu dio saguak

entzuten al duzu hau? **pip pip pip pip**

bai esan du oiloak pip pip pip pip esan duzu

saguak hantuta dago ez duzu belarrak baina dena entzuten duzu

ber esan nahi dute nitz hantak? gaitetu dio oiloak ez duzu esan du saguak bermatu egin ditut sarru gaito dute bai, nire gustotzen zait

baseritara zeri? esan du oiloak denu nire pip pip eta rik pip pip denuko dute



AURKIBIDEA

GAIA / 10

HANDIRA JOKATZEKO GARAIA DA

'Euskararen Herria Euskal Hiztun' jardunaldiak ospatu ziren azaroan Euskalgintzaren Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak antolatuta. Besteak beste, hainbat hezkuntza eragileren artean osatutako mahai-inguru bat egin zen. Aurrera begira ikasleen gaitasunetan eragiteko eta belaunaldi berri euskaldun aktibo eleanitzak erdiesteko zein esparrutan eragin behar den mahaigaineratu zuten.

ELKARRIZKETA / 20

HATSA BATZARRA

Irailean eskoletan ezarri behar ziren protokoloek marrazten zituzten eszenatokiez kezkatuta, hainbat irakasle eta familia elkartu ziren Baztan-Bidasoako Hezkuntza Komunitateko Hatsa Batzarra izenpean, irakaskuntzako protokoloak aztertu eta horien malgutzea eskatzeko. Hatsa Batzarreko kide Gorka Rodriguez, Joserra Lopez eta Nerea Rodriguez elkarrizketatu ditu **Hik Hasik**.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostitxu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi,

Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Azaleko argazkia: Elixabet Menendez
Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2020-12-04).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Ederra da norabide berean elkarlanean aritzea

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Handira jokatzeko garaia da

20 ELKARRIZKETA HATSA BATZARRA

“Ebidentziak egon badaude irakaskuntzan protokoloak malgu daitezkeela esateko”

26 ESPERIENTZIAK

Jabetu, amestu, eraldatu. Orioko Zaragueta herri-eskola

32 EKARPENAK

Nola birplanteatu aurtengo mozorroak? Arte-hezkuntza bidelagun

36 GALDEIDAZU

HEZKUNTZA PLAZARA

Pandemiak utzitako urgentziazko egoeran, zer aldarrikatzen eta eskaintzen du Hezkuntza Plazarak?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA


Bidaietaz antzezlan

42 ATZEKO ATETIK

Paul Bilbao



Agenda berria



Ederra da norabide berean elkarlanean aritzea

editoriala

HEZKUNTZA-ERAGILEAK ADOS DIRA EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA UNIBERTSALIZATZEAK LEHENTASUNEZKO GAIA IZAN BEHAR DUELA. EDERRA LITZATEKE GAINERAKO GAIA ETAN ERE ADOSTASUNA LORTZEA.

Euskalgintzaren Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak antolatuta *Euskararen Herria Euskal Hiztun* jardunaldiak egin ziren iazko azaroan Bilbon eta euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa izan zen jardunaldien ardatz, mintzagai eta hausnarke-tagai. Gizarteko esparru ugariatuko kideek hartu zuten parte, eta baita hainbat hezkuntza-eragilek ere.

Mahai-inguruan bildurik, euskal irakaskuntzan orain arte egindako lana aitortu zuten lau hezkuntza-eragileek: EHIGeko koordinatzaile Lurdes Imazek, EHiko lehendakari Koldo Tellituk, Kristau Eskolako zuzendari nagusi Mikel Ormazabalek eta EHIZEko lehendakari Iñigo Salaberriak, Arantxa Urbe moderatzailearen gidaritzapean. Eremu guztietan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko egin den lana aitortu zuten eta horrekin batera, ikusten diren hutsuneak ere izendatu zituzten, eta baita aurrera begira egin beharreko urratsak planteatu ere.

Eta bada garrantzi handia duen puntu bat: azken urteotan halako erlaxazio bat antze-man dela onartu dute denek, uste izan delako euskararen normalizazioaren erronka lortua zegoela. Ondorioz, euskarak lehentasunezko gai izateari utzi dio eta hezkuntza-eragileen artean beste gai batzuei eman zaie lehentasu-



na. Orain, horretaz jabeturik, eta oraindik ere erronka lortu gabe dagoela ikusirik, euskararen ezagutzaren eta erabilerearen gaia lehen planora ekartzeko beharra ikusten dute denek. Beharra eta hori aurrera eramateko erabaki irmoa ere bai. Denek ikusten dute eta egin nahi dute.

Zentzu horretan, pozgarria da denek erakutsi duten adostasuna eta bidea elkarrekin egiteko nahia eta borondatea. Ederra litzateke euskararen gaian bezala, gainerakoetan ere adostasunetara iristea. Nor bere gerizpetik irten eta elkarlanean aritzea, elkar entzuteko eta besteen ikuspegiak ulertzeko ahalegina egitea, eta hortik eraldatu eta eraikitzea.

Ez du zapore onik uzten 1993. urteko publikazioaren ondoren, 28 urte geroago, gai horri dagokionez ia puntu berean egon gaitzkeela ikusteak. 28 urtetan umeez, gazteek eta helduek bilakera bat izaten dute, eta urteetako esperientziak eta gorabeherak tarteko, heldutasuna eskuratzeko aukera ematen du bizitzak. Eta heldutasunez eta errespetuz, gauzak beste modu batera ikusteko, aztertze eta egiteko aukera sortzen da.

Ea bada, euskararen gaian bezalaxe, gainerakoetan ere heldutasunez, errespetuz, borondatez eta elkarlanean bidea egiteko gai garen 2021. urtean.

“Ez daukagu hezkuntza sistema euskaldunik... formakuntza ez da gauza neutro bat, hor kultura bat dago, eta kulturak egiten du modu batera gogoetatzea, ikastea, eta horrekin zuk zure saiakerak egitea edo ez. Hor hutsuneak dauzkagu”

Jaione Apalategi

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

'PUPITRE ISOLATUA' EKINTZA DEITU DUTE, PROTOKOLOEN ONDORIOZ HAURREK EGOERA ZAILA BIZI DUTELA SALATZEKO

Baztan Bidasoako Hezkuntza-Komunitateak deituta, *Pupitre isolatua* ekintza egin dute Euskal Herriko hamaika herritan, *Eman diezaiegun haurrei arnasa* lelopean, COVID-19ari aurre egiteko ezarri diren protokoloek haurrak egoera zailtan uzten dituztela salatzeke. Familiak eta irakasleak biltzen dituen taldeak ekintza honekin deitoratu nahi izan du haurrei kontaktua, jolasa eta arnasa murrizten zaizkiela protokoloen neurrien eraginez.

Pupitre isolatua ekintzaren lehen deialdia abenduaren 14tik 18ra egin badute ere, Hatsa Batzarrak dei egin du ekintza horren bideo eta argazkiak jasotzen jarraituko duela aurrerantzean ere, hatsabatzarra@gmail.com helbidean. Ondoren, sare sozialetan zabaldu, komunikabideetara bidali eta haurrek bizi duten egoeraren inguruko sentsibilizazioa zabaldu nahi du. Hatsa Batzarrak ikastetxeetan ezarri diren protokoloen malgutzea eskatzen du.



HAUR HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO LANGILEAK PROTESTARA IRTEN DIRA

Haurreskoak Partzuergoko langileek greba egin zuten abenduaren 10ean eta 16an eta ondotik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin elkartu ziren ELA, LAB eta Steilas sindikatuko kideak langileen ordezkari moduan. Kudeaketako langileen aurrekordioaz hitz egiteko egin zuten bilera, eta sindikatuek kritikatu dute Hezkuntza Saileko ordezkariak ez zutela horri buruzko dokumenturik aurkeztu. Horrez gain, oraindik aurrekordioa bete gabe dagoela salatu dute.

Nafarroako eta EAeko Lanbide Heziketako irakasleek ere protesta egin dute, LOMLOEk ezarritako aldaketa baten ondorioz, Lanbide Heziketako irakasle izateko ez delako nahikoa izango Lanbide Heziketako titulazioa edukitzea, baizik eta gradu titulazioa ere eskatuko baitzaie hemendik aurrera. Ondorioz, ez dakite langileak zein egoeratan geratuko diren, batik bat behin-behinean dauden ehunka irakasle. Badirudi haiek egiten duten lana ordezkatzeko beste figura bat sortuko dutela, irakasle espezialistarena: "Beharren arabera kontratazioak izango dira, egonkortasunik gabeak, eta horrela ezin da irakaskuntzan aritu".

IPARRALDEAN MURGILTZE-SISTEMA OROKORTZEKO URRATS BERRIA EGIN DUTE

Euskarazko murgiltze-eredua orokortzeko urrats berri bat egin dute Ipar Euskal Herrian, Frantziako Senatuak eskola publikoetan hizkuntza gutxituen murgiltze-esperimentazioa orokortzeko lege-proposamena onartu baitzuen abenduaren 10ean. Datorren apirilean eztabaidatuko dute Frantziako Asanblean eta bertan hartuko dute azken erabakia. Baiezkoak euskarazko irakaskuntza orokortzeko ahaleginari bultzada emango lioke.

AITOR ETXARTE IRAKASLE ETA HEZKUNTZA-ERAGILEA HIL DA

Urtearen amaierako albiste tristea izan da Aitor Etxarte euskaltzalearen heriotza. Euskarazko irakaskuntzari erabat lotuta pasa zuen bizitza Iruñerrian; Iruñeko udal ikastolen sorreran parte hartu zuen 70eko hamarkadan, 41 urtez jardun zuen irakasle eta zuzendari-lanetan Hegoalde ikastolan, 2015etik 2019ra Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakari izan zen eta ondoren erretiroa hartu zuen. Haren lanak jarraipena izan beza.

Hik Hasiren liburu berria



Natura, askotariko materialak, sormena, ikerketa, jolasa... eskuak, hankak eta burua mugiarazten dituzten ideiak eta proposamenak

Salgai www.hikhasi.eus-en
Esperimentazioan sakonduz biziberritu



HIK HASIK HAUSNARKETA KOLEKTIBOA ANTOLATU DU URTARRILAREN 21EAN



Hik Hasiren 25. urteurrenaren harira, urtarrilaren 21ean Hezkuntza Adierazpenaren gaineko hausnarketa kolektiboa egingo da Iruñean. "Elkarrekin, guztiontzako hezkuntza-eredu hobe baten alde" egindako adierazpenaren puntuak aletu eta partekatuko dira bertan. Euskal Herriko hezkuntzak unea du aurrera begira jarri eta eraldaketa sakona egiteko. Nor bere lubakian gotortu beharrean, guztiona eta guztiontzako hezkuntza-eredu hobe baten alde elkartzeko unea da. Eta hori eragile guztien parte-hartzearekin egin behar da. Aukera hori jarriko du urtarrilaren 21ean **Hik Hasik** Iruñean. Informazio gehiago, www.hikhasi.eus-en.

NAZIOARTEKO II. HEZKUNTZA KONFERENTZIA URTARRILAREN 30EAN

EH Bilduk Nazioarteko II. Hezkuntza Konferentzia antolatu du urtarrilaren 29 eta 30erako. Udalgintza herrigilearen apustuari eutsiz, estatu batzuetan hezkuntza sistema herrira hurbiltzeko egin dituzten esperientziak eman nahi dituzte ezagutzera. Hala, Europan udal kudeaketan erreferenteak diren hezkuntza-ereduen adibideak ekarriko dituzte Euskal Herrira, besteak beste, Portokoa eta Stockholmekoa. Haien jardunean oinarri diren hainbat ezaugarri ezagutzeko aukera emango du: herria-udala-ikastetxea-udala-herriak zer-nolako harremana duten, zer-nolako proiektu miunizipalistak dituzten, nola kudeatzen duten eta abar. Konferentzia zuzenean streaming bidez izango da.

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSEN 'AMAREN INTXAURRAK' IKUSKIZUN BERRIAREN EMANALDIK IKUSGAI DIRA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen proiektu berriak heriotzaren gaia lantzen du. *Amaren intxaurrek* du izena eta disko eta liburuaz gain, ohi bezala, ikuskizuna prestatu dute. Naturak heriotza ulertzen lagunduko die pailazoei egitasmo berrian. Hurrengo emanaldiak hauek izango dira:

- Urtarrilak 22: Elgoibar (Gipuzkoa); antzokian, 17:00etan eta 19:00etan.
- Urtarrilak 23: Andoain (Gipuzkoa); Bastero kulturgunean, 16:00etan eta 19:00etan.
- Urtarrilak 24: Urretxu (Gipuzkoa); Ederrena pilotalekuan, 16:30ean eta 18:30ean.
- Urtarrilak 30: Irun (Gipuzkoa); Amaia antzokian, 12:00etan eta 16:30ean.
- Otsailak 6: Azpeitia (Gipuzkoa); Soreasu antzokian, 16:00etan eta 18:30ean.

Informazio gehiago: www.katxiporreta.eus

HIZPIDE IZANGO DA

'ITZULI+' ITZULTZAILE NEURONALA JARRI DU DENEN ESKURA EUSKO JAURLARITZAK

Eusko Jaurlaritzak *Itzuli+* itzultzaile automatikorako tresna berria aurkeztu du. Erreminta berri honek euskarazko eta gaztelaniazko testuak itzultzen ditu webguneetatik berehala eta itzulitako testuak irakurtzen ditu. Horrez gain, aukera ematen du itzulitako testua eta jatorrizkoa irakurtzeko. Dagoeneko 3.700 lagunek deskargatu dute. Iraskuntza-arlorako oso tresna gomendagarria dela iruditzen zaie bultzatzaileei, batez ere testuak idazteko eta itzultzeko. "Ikasleek eta gurasoek maiz erabiltzen dute itzulpenetarako, eta, halaber, oso interesgarria izan daiteke esparru akademikoetan eta erakunde publikoekiko komunikazioetan". Gainera, uste dute testuen itzulpena eta jatorrizkoa irakurtzeko modua ematea aukera interesgarria dela interprete lanetarako eta ikusmen urritasuna edo dislexia dutenentzat.

Tresna berriak Interneten dauden hainbat erreminta bildu ditu: *Itzuli* itzultzaile neuronalak; Elhuyar, Morris eta Collins hiztegiak; euskarazko Wikipedia; eta ahotsaren sintesia. Automatikoki lotzen da *Itzuli* itzultzailearekin eta aukera ematen du hainbat hiztegiarekin —baita alemanezkoarekin ere— eta Wikipediarekin ere konektatzeko. Erraz eta intuizioz erabiltzeko modukoa dela ziurtatu dute bultzatzaileek: webgune batean paragrafo bat edo gehiago aukeratzen dute erabiltzaileek, eta *itzuli* ikonoan zapaldu ondoren, itzulpen automatikoa ematen du; *beta* aukera sakatuz gero, berriz, testua itzulita entzun dezakete. Gaur-gaurkoz Firefoxen eta Chromen dago eskuragarri.



GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

eskola, herri eta auzo txikiak bizirik!

ABALTZISKETA
ADUNA
AGIÑA
AIZARNA
AIZARNAZABAL
ALBIZTUR
ALKIZA

ALTZO
ANGIOZAR
ARROA
BERROBI
BIDANIA-GOITZ
EREÑOZU
ERREZIL

EZKIO-ITSASO
GABIRI
IGELDO
IKAZTEGIETA
ITSASONDO
LARRAUL
LIZARTZA

OIKIA
OLABERRIA
ZERAIN
ZIZURKIL
ZUBIETA





Euskararen ezagutzak, erabilerak eta normalizazioak hizketagai eta hausnarketagai izaten jarraitzen dute. Azkenaldian gehiago agian, horren inguruko jardunaldiak egin direlako, galdeketa berrien emaitzak ezagutzera eman direlako, Euskaraldiaren ariketa kolektiboa egin delako, pandemiaren ondoren hainbat gabezia eta ahulgune agerian geratu direlako eta abar. Euskaingintzaren Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak azaroan antolatutako 'Euskararen Herria Euskal Hiztun' jardunaldietan euskararen ezagutza unibertsalizatzeko beharra azpimarratu zuten parte-hartzaileek, eta baita ezinbestean horrekin lotuta dagoen erabilera ziurtatzeko premia ere. Egungo testuinguruan kokatuta, berau aztertu eta hortik abiatuta, ideia, proposamen eta erronka gaurkotuak planteatu zituzten, hala hezkuntza esparrurako nola gizarte osorako.

GAIA: HANDIRA JOKATZEKO GARAIA DA

‘Euskararen Herria Euskal Hiztun’ jardunaldiak

Sarearen bidez ehun lagun inguruk jarraitu zituzten bi egunetan zehar Euskalgintzaren Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako *Euskararen Herria Euskal Hiztun* jardunaldiak eta bertan euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa izan zen hausnarketagai. Hezkuntzan, aisian, erakundeen hizkuntza-politikan, helduen euskalduntzean, enpresetan eta beste hainbat arlotan euskararen ezagutza eta erabileraren osasuna nolakoa den ikusteko saiakera egin zen. Eta guztiek bat egin zuten euskararen ezagutza eta erabilera banaezinak direla azpimarratzean. Hortaz, euskararen sustatze politikak garatzeko garaian elkarreagin hori aintzat hartu behar dela ondorioztatu zuten.

Ezagutza eta erabilera, biak batera, eta testuinguru berri batean. Horretaz ere jabetu baitziren: testuinguru berri batean gaudela —batez ere herritar gazteen euskararen ezagutzak eta erabilerak hartu duen garrantziagatik—, eta beraz, garrantzitsua dela testuinguru hori aztertzea, ulertzea eta horren araberako moldeak eta ekimenak bultzatzea.

Bi egunetako jardunaldietan hezkuntza arloko zenbait eragilek osatutako mahai-inguru bat egin zen: *Hezkuntzaren oraina eta etorkizuna: zer eta nola egin ikasleen gaitasuntan eragiteko eta belaunaldi berri euskaldun (aktibo) elea-nitzak erdiesteko?* Bertan bildu ziren Lurdes Imaz EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteko koordinatzailea, Mikel Ormazabal Kristau Eskolako zuzendari nagusia, Iñigo Salaberria HEIZE Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkarteen Federazioko lehendakaria eta Koldo Tellitu EHI Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko lehendakaria. Oro har, bat-etorri ziren orain arte egindako ibilbideari eta lanari aitortza egiterakoan, gabeziak onartzerakoan eta aurrera begirako lehentasunak ezartzerakoan.

Hezkuntzaren esparruan abiadura desberdina darama euskararen ezagutzak eta erabilerak EAEn, Nafarroan eta Iparraldean, eta lurralde bakoitzeko herrien artean ere aldeak daude. Lege ikuspegitik Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskararen ofizialtasunik ezak asko oztokatzen du euskarazko irakaskuntza. Seaskaren jarduna emaitzak ematen ari da, urtez urte matrikulazioa igoz, eta

GAIA: HANDIRA JOKATZEKO GARAIA DA

'Euskararen Herria Euskal Hiztun' jardunaldiak



Parte-hartzaileak: Arantxa Urbe moderatzailea, Koldo Tellitu Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko lehendakaria, Lurdes Imaz Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteko koordinatzailea, Mikel Ormazabal Kristau Eskolako zuzendari nagusia eta Iñigo Salaberria Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioko lehendakaria.

sare publikoan ere pixkanaka zabaltzen ari dira zirrikituak; Ama Eskolan 20 ikastetxe ingurutan hasiak dira D ereduaren irakasten eta Lehen Mailan ikasleen % 20 dago B ereduaren. Aldiz, kolegioetan B ereduaren ikasten duten ikasleen kopurua asko gutxitzen da.

Nafarroan Euskararen Legeak lurraldea zonaldetan banatzen du eta horrek ere oztopatu egiten du euskarazko irakaskuntzaren hedapena. Ikastolak eremu ez-euskaldunean zabaldua dauden arren, sare publikoan zailtasun handiagoak daude eremuen araberrako banaketa dela eta. Egundik ikasleen % 25ak hautatzen du sare publikoan D ereduaren.

EAEn Euskararen Legea ezarri eta 38 urte geroago D ereduaren indarra hartu duena eta gailentzen dena, A eta B ereduak desagertzen doazelarik. Lurdes Imaz EHIGEko koordinatzaileak argi adierazi zuen mahai-inguruan: “A eta B ereduak ez dute bermatzen euskararen ezagutza; D ereduaren indarra ezagutza ondoen bermatzen duena —ondoen esan dut, ez baitu guztiz bermatzen—. D ereduaren bilakaera pozgarria dela azpimarratu zuen, baina emaitzak kezkarriak. “Zergatik? Ikusten dugulako ikasle kopuru handi batek ez duela lortzen oinarriko kompetentzia euskaraz”. Ikasle asko hasierako errendimendu mailan geratu ei dira. Koldo Tellitu EHiko lehendakaria ere bat etorri zen Imazen iritziarekin: “Egoera oso kezkarria da D ereduaren matrikulatutako ikasle kopuruak gora egin due-

lako eta gure emaitzek arlo horretan behera egin dutelako. Horrek frogatzen du D ereduaren matrikulatuta egoteak ez duela ziurtatzen gutxiengoaren ezagutza eta erabilera”.

Hezkuntza eragilearen artean adostasuna dago ikasleek lortu behar duten euskarazko mailari dagokionez: Lehen Hezkuntza amaitzean gutxienez B1 maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean B2 maila. “Baina helburu horiek oso urrun geratzen dira. Ez dira lorgarriak A eta B ereduaren ikasten ari diren ikasleentzat, eta D ereduaren ikasten ari diren askorentzat ere ez”, onartu zuen Tellituk. “Ikasle askok maila ‘nahikoa’ daukate derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan. Eta maila horrek zertarako balio die? Euskaraz esaten den guztia ulertzeko, telebista pizten dutenean ulertzeko eta euskarazko irakasgaiak gaintzeko. Baina maila hori askotan ez da nahikoa euskaraz bizitzeko, ez da nahikoa euskaraz bizitzeko arlo guztietan aritzeko. Horretarako, erraztasunez hitz egiteko, gustura eta lasai aritzeko eta zeure izateko, maila handiagoa behar da. Gizartearen zati bat konformatzen da seme-alaben ‘nahikoa’ horrekin derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan. Askoren hausnarketak dira: ‘Badaki eta gero gehiago behar badu, ikasiko du’. Beraz, hor aztergai den elementu bat daukagu”. EHiko lehendakariak argi zioen: “Hezkuntza-ereduak desagertu egin behar dira eta ikastetxe guztietan ikasle euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikas-eredu orokor bat ezarri behar da, hau da, murgiltze-eredua”.

GAIA: HANDIRA JOKATZEKO GARAIA DA

Mikel Ormazabal Kristau Eskolako zuzendari nagusia antzera mintzatu zen: “Nik uste dut gaindituta dagoela eredu sistema eta gainditu egin behar dela. Halere, uste dut gehiegi gaitzesten ditugula, ahaztuz zer gauza lortu ditugun hizkuntza-ereduekin Euskal Autonomia Erkidegoan: berme juridikoa eman zigun, beste herrialde batzuetan izan zituzten traba juridikoak ez genituen izan hemen. Agian momentu batzuetan mantsotu egin da euskalduntze-prozesua eredu horiek gaizki erabiliak izan direlako edo erakunde bakoitzak zituen ezinengatik hor kateatu eta jolasean ibili izan delako”. Hausnarketa horri beste bat gehitu zion Ormazabalek. “Hezkuntza elebiduna genuenean jarri ziren eredu horiek; orain egoera aldatu egin zaigu, hezkuntza eleaniztuna daukagu eta egoera konplikatu egin zaigu”.

Egoera konplikatu baino gehiago, aniztasuna gehitu dela azpimarratu zuten gainerako mahaikideek. Imazen iritiz, positiboa da D ereduak izan duen gorakada, “horrek esan nahi duelako lortu dugula denetariko ikasleak izatea D ereduan euskaraz ikasten. Baina kontuan izan behar dugu horrek eragin egiten duela emaitzetan. Aniztasun linguistikoa daukagu, hizkuntza gaitasun desberdina duten ikasleak ditugu eta hori oso lotuta dago aniztasun sozioekonomikoarekin”.

Iñigo Salaberria HEIZEko lehendakaria ados agertu zen. “Aniztasun soziolinguistikoa aniztasun sozioekonomiko baten bestelako ondorio bat izan daiteke, eta beraz, arlo horretan ikerkuntza beharrezkoa da ez delako berdin esku-hartze didaktiko bat egitea halako gaitasun bereziak dituen ikasleria mota batekin edo beste batekin”. Horregatik aldarrikatu zuen, ikerkuntza bidelagun izateko, unibertsitatean egiten diren ikerketek ikastetxeekin lotura izatea. “Unibertsitatean ikerkuntza oso aurreratua ditugu, baina ikerkuntza horietatik zer-nolako zirimiria datorkigu gure klaustroetan aplikatzeko? Hori eta irakasleen etengabeko formakuntza lotuta, ezagutza zientifikoaren eta aplikazio praktikoaren arteko bidea jorratzen, laguntzen eta sustatzen asmatu beharko genuke”.

Pandemiak utzitako urgentziazko neurriak

Testuinguru berriak neurri berriak eskatzen dituela jakitun izanik, mahaikideek pandemiak utzitako egoera ekarri zuten gogora, espero gabeko testuinguru horri erantzuna emateko beharrean aurkitu baitira ikastetxeak, ikasleak, irakasleak, familiak eta hezkuntza-komunitate osoa. “Eta orain, euskara deskonfinatu egin behar dugu, izugarritzko erronkak dauzkagulako”, zioen Ormazabalek.

Salaberriak argi adierazi zuen urgentziazko lana egiten ari direla, “martxoaren 13az geroztik. Urgentziazko gizarte batean bizi gara, beharrak urgenteak dira eta bizipen horietatik eta lehendik egindako esfortzuetatik ari dira erantzuten irakasleak. Euskarari dagokionez, dagoeneko egoera zail batean geunden eta orain bestelako zailtasun bat gehitu zaio. Beraz, diagnostiko zorrotza egin behar dugu ondoren garrantzitsua den horri erantzuteko”.

Zentzu berean mintzatu zen Ormazabal: “Nik uste dut urgentea dela ebaluazio bat egitea, benetan egiaz ikastetxe, irakasle eta zuzendari guztiok argi izatea zer hutsune eta indargune dauzkagun, zein behar dauzkagun eta ebaluzio horretatik erabaki hurrengo urratsak, zeren presaka eta korrika ezin gara ibili beti”.

EHIGEko koordinatzailearen aburuz, “urgentea dena da euskararentzako presentzia. Ikastetxeak itxita egon direnean, euskararik gabe geratu dira ikasle asko eta asko. Orain, momentuz, eskolak irekita daudenez, presentzia hori bermatuta dago. Baina hortik haratago, garrantzitsua da presentzia hori ahalik eta zabalena izatea, hau da, goizetik arratsaldera arte, eskolan eta aisialdian”. Horrekin batera, Imazi urgentea iruditzen zaio familien parte-hartzea bermatzea. “Eskolak ez daude irekita familientzat eta urgentea da hori ere irekitzea. Eta galdu ditugun hainbat gauza erreperatzea ere bai, euskal girotze barnetegiak, adibidez”.

Salaberriak beste bi esparru aipatu zituen mahai-inguruan: “Bata digitalizazioarena. Eduki aldetik kalitatezko euskarazko digitalizazioa eskaini behar diegu gure neska-mutilei eta digitalizazioaren eremua euskaldundu egin behar dugu kalitatezko baliabideekin. Inguruan sormenerako ditugun baliabide guztiak —kulturgintzan, zientzian, kirolean, artean...— eraginkor izatea lortu behar dugu eta dauzkagun sortzaile bikainak horretan jarri. Eta bigarren urgentziazko esparrua euskararen normalkuntzarena eta gaitasun komunikatiboarena da. Kontuan eduki behar dugu euskara ez dela ikasgai bat soilik, komunikazio tresna bat baizik. Eta komunikaziorako tresna den heinean, komunikazioak berezkoak dituen gaitasunak ere landu behar ditugu euskararekin”. Bi esparru horietako gabeziak konpentsatzeko bideak ere zehaztu zituen HEIZEko lehendakariak: “baliabideak eta sormena”.

Ormazabalen iritiz guztiz beharrezkoa da curriculum egokitzea ere. “Nik sinistu nahi dut egiten ari garela, baina beharrezkoa da, bestela porrotak izango ditugu”. Tellituk

GAIA: HANDIRA JOKATZEKO GARAIA DA

‘Euskararen Herria Euskal Hiztun’ jardunaldiak

ere ikuspegi bera agertu zuen: “Gure agendan egon behar du etengabe curriculuma egokitzeak; etengabe hausnarren eta aztertzen jardun behar dugu momentu bakoitzean zer behar duten ikasleek. Agian une batean arlo emozionalari espazio handiagoa eman beharko zaio, nik uste dut hori ezin dugula baztertu. Beraz, kontuz ibili behar dugu edukiekin eta helburu jakinekin tematzearekin. Ongi aztertu beharreko gaia da, ikasle eta irakasle asko *krak* egiteko arriskuan egon daitezkeelako. Gainera, orain arte orokorrean osasun- eta segurtasun-neurriei eman diegu lehentasuna; eta horretan asmatu dugu eta lan izugarri ona egin dugu. Baina biak aurrera eramateak —segurtasun-neurriak eta heziketa-lana— nekea sortu die irakasleei. Ikasturte hasieran ilusioz itzuli ziren, baina ikusi beharko dugu nola heltzen garen udaberrira. Horrekin oso adi egon behar dugu”.

Bizipen horiek ikastetxe guztietan bizi izan dituzte, eta ondorioak ikusten ari dira. “Osasun krisiaren gestioan gure zuzendaritza-taldeak beraien jardunaren % 150 ematen aritu dira eta aurreikusitako dezaie horretan jardungo direla. Baina, orduan, pedagogiaz noiz hitz egingo dugu? Ditugun beharrei metodologikoki nola aurre egingo diegun erabakitzeke tartea noiz hartuko dugu? Noiz partekatuko ditugu gure ezagutzak?”, galdetzen du Salaberriak.

Aurrera begirako pausoak

Ikasle euskaldun aktibo eleaniztunak erdiestea da hezkuntzaren erronka eta jomuga, besteak beste. Euskal Herriko ikastetxeetatik irteten diren ikasleak gai izatea euskaraz

komunikatzeko eta bizitzeko, eta horrekin batera, beste hizkuntzetan —gaztelania, frantsea eta ingelesa— ere bai. Helburu horiek lortzeko bidea marraztu zuen 2008an Euskalgintzaren Kontseiluak EA Erako: *Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen* izeneko proposamena (<https://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2015/05/Ikasle-euskaldun-eleanitzak-sortzen.pdf>). *Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn* legearen garapenerako proposamena izan zen berau.

Puntuz puntu proposamen zehatzak egin ziren, besteak beste, etapa eta ziklo bakoitzean hizkuntzen arteko denbora-banaketa egiteko, ikastetxe guztiek izan behar duten hizkuntza-proiektua aberasteko eta B2 helburua egoki neurtzeko. Orain, 12 urte geroago, txostenak baliagarri izaten jarraitzen ote duen galdetuta, hezkuntza-eragileek baiezkoa diote, betiere, Imazek dioen moduan, eguneratuta eta egokituta, “12 urte pasa direlako eta gizartea eta ikasleak aldatu egin direlako”. Orduko ikasle tipologia eta gaur egungoa ez dira berdinak, askoz ere aniztasun handiagoa dago. D ereduko ikasleen kopurua igo egin da, eta horrekin batera ikasle aniztasuna ere bai.

Proposamen hura eta egungo errealitatea aintzat hartuta, ikasleen gaitasunetan eragiteko eta belaunaldi berri euskaldun aktibo eleaniztunak erdiesteko, esparru hauek jorrazteko premia ikusten dute mahai-inguruan parte hartu zuten lau hezkuntza-eragileek:

- **Euskararen aldeko diskurtsoa:** txostenean euskararen aldeko diskurtsoa berreskuratu behar zela esaten zen duela



GAIA: HANDIRA JOKATZEKO GARAIA DA



12 urte, eta puntu horri adarretatik heldu behar zaiola argi dute hezkuntza eragileek. “Azken urteetan euskararen erabilera bultzatzeko ekimenek, proposamenek, diskurtsoek eta abar indarra galdu dute. Hori nabarmena da”, Telliturren iritziz. Kontseiluko txostenean zera esaten zen: eleantzasunaren izaera eta ezaugarriak jende artean zabalduko dituen diskurtsoa zabaltzea, hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzaren planteamendu berri horretan euskarari lehentasuna ematearen abantailak eta alde onak azpimarratuz. “Nik uste dut azken urteotan ez garela oso fin ibili”, Telliturren aburuz. “Hezkuntzan euskararen normalizazioaren erronka lortutzat jo dugu. D eredu etengabe goraka ikusi dugu, ia-ia guztia egin zegoela pentsatu dugu eta erlaxatu egin gara. Ondorioz, euskarak gure lehentasunen artean egoteari utzi dio. Hezkuntza-eragileon arteko eztabaidetan beste gai batzuk egon dira eta euskarari tokia kendu diote”. Orain, emaitzak ikusita, autokritikoak izan beharra dagoela azpimarratzen du, eta berriro ere euskara lehen planora ekarri behar dela.

- **Euskararen prestigioa:** diskurtsoarekin batera, Ormazabalaren ustez euskararen prestigioa eta erakargarritasuna lantzea funtsezkoa da. “Nik garrantzia ematen diot euskarak prestigioa izateari. Baldin eta gazteek euskara erabiltzea nahi baldin badugu, euskara prestigiatu egin behar dugu, eta erakargarri egin. Eta erakargarritasuna lortzeko euskara maitatzen erakutsi behar diegu, eta hori arlo afektiboa landuz lortzen da, erlazioen bitartez. Ikusi behar dute hizkuntza bat erreminta bat baino gehiago dela, pentsamendu bat sortzen duena, antropologia bat,

ikuspuntu bat, ikuskera bat”. Prestigioak erakargarritasuna emango dio euskarari, eta erakargarritasun horrek erabilera ekarriko du.

Salaberriaren iritziz bada beste ezaugarri bat ere: euskara arrakastarako giltzarri bihurtzea. “Gizarte kohesiorako, igogailu sozialerako, euskara arrakastarako giltzarri izan da gizarte honetan. Nire galdera da: gaur egun hala al da? Alegia, azken urteotako bilakaeraren oinarrian egon den giltzarri hori gaur egun ere aktibo al dago? Ala besterik gabe militantziarik eskatzen ez duen jarrera bat da? Hau da, nire seme-alabak D ereduan matrikulatu ditut eta kito, hor amaitzen da nire euskararekiko militantzia? Edo irakasle gisa 2. hizkuntz perfila dut eta hor bukatzen da nire militantzia? Ez luke horrela izan behar, euskarak oraindik ere beharrezkoa duelako militantzia aktiboa”. Haatik, konpromiso hori emozioekin lotzen du, ezinbestean. Ormazabalek aipatutakoaren ildotik, erlazioen eta maitasunaren bidez sentitzen den hunkidura hori lortu dute batzuek, eta beste batzuek senti dezaten lortu behar da. “Bide eta bizi hori irekiarazi behar diegu irekita ez dutenei, eta guk, hezkuntzako profesionalak garen heinean, ezinbestean kalitatezko hezkuntza-ereduak eskainiz egin behar dugu hori. Ni Martintxok —beste batzuek Xabiartxok— hunkitu egin ninduen. Izen bat baino ez da, baina badu zer bait. Zer? Emozioa. Eta horrek, batzuei arrakastarako bidea erakutsi zien. Adibidez, etxetik euskara zekartenei alfabetatzeko, ‘euskarak ere merezi du nire aldetik alfabetatzeko esfortzu bat’. Eta etxetik euskaldun ez gentozenontzat erronka izan da, ‘ondokoak egin baldin badu eta on egin

GAIA: HANDIRA JOKATZEKO GARAIA DA

‘Euskararen Herria Euskal Hiztun’ jardunaldiak

baldin badio, niri ere on egingo dit’. Euskarak berezi egiten gaitu, eta gure txikitasunean hori izan daiteke ingelesez *brandy* esaten dena; euskarak egingo gaitu berezi eta arrakastatsu gaur egungo globalizazioaren barruan”.

- Diagnostiko zorrotza: argi ikusten dute denek aurrera egiteko non gauden jakin behar dugula. Gizartea aldatu egin da, ikasleak aldatu egin dira eta beraz, euskararen ezagutza eta erabilera lortzeko estrategiek eta ekimenek aldaketa horiek aintzat hartu behar dituzte. Horretarako, diagnostiko zorrotz bat eskatzen dute guztiek, “gabeziak azalduko dizkiguna, bestela ezin baita hobekuntza planik planteatu”.

Azterketa horiek eta gabezien detektatzea ez dira ikastetxera eta eremu soziolinguistikora soilik mugatu behar, eremu sozioekonomikoa eta soziopedagogikoa ere ikergai izan behar dira.

- Hizkuntza-proiektua: behin diagnostikoa eginda, hezkuntza-proiektuaren barruan hizkuntza-proiektuari ematen diote garrantzia. “Nik nire sareko ikastetxeei lehendabizi hori eskatzen diet: hizkuntza-proiektua edukitzea. Nik ez ditut euskaradunak nahi, nik euskaldunak nahi ditut. Zentzu horretan, ikastetxeei ardura eskatu behar zaie. Nik ez dut ulertzen Euskal Herrian euskaraz ez dakien irakaslerik egotea, euskal hezkuntza sisteman euskaldunak behar ditugu eta horretan sinisten duen ikastetxe batek hizkuntza proiektu sendoa eduki behar du. Gero, politikariei esango nieke bakean lana egiten uzteko. Hezkuntza sailburuaren lana izango da helburuak jartzea eta gero eskatzea, ebaluaketak egitea. Baina utzi lana egiten, zeren toki guztietan lana ez da berdina”.

Tellituren ustez ere “hizkuntza-proiektua gakoa da, elementu klabea da eta administraziori helarazi behar diogu hori, behar diren baliabideak jar ditzan, eta gutxiago

duenari gehiago eman, edo beste modu batera esanda, gehiago behar duenari gehiago eman. Zeren irtenbidea ez da baldintza soziolinguistikoko makurragoetan dauden eremuetan gaitasunak jaitea, inondik ere ez. Berdintasun printzipioa bermatzeko, ikasleek maila eta gaitasun berdinak eskuratzeko, gehiago behar duenari gehiago eman behar zaio. Hau da, baliabide berezituak jarri behar dira berdintasun printzipio hori bermatzeko eta guztiok helburu horiek lortzeko aukera izateko”.

“Guztiok” horretan sartzen dira atzerritik etorritako ikasle etorkinak ere, noski. “Jatorri atzerritarra duten ikasleekin apustu izugarria daukagu herri bezala, ez hezkuntza-arloan bakarrik”, Tellituren iritziz. “Hezkuntzari dagokionez, planifikazio bat behar da, ezin da ume bat gela batean sartu ez euskararik, ez gaztelanirik eta ez ingelesik jakin gabe. Aurretik egokitze-fase bat landu behar da hemengo hizkuntza-egoerara egokitzeko, Katalunian, Madrilan eta beste hainbat lekutan egiten ari diren bezala”. Eta horri gehitzen dio Ormazabalek etorkin horien ama hizkuntzaren trataera. “Ez dut uste gure artean hausnarketa orekaturia egin dugunik ikasle etorkinen ama hizkuntzari eman behar diogun trataeraren gainean. Ez dakit beldur garen baliabide pila bat behar direlako, hezitzaile asko behar direlako...”.

- Hezkuntza ez-formala, familiak eta gainerako eragileak: eskoletan ikasleak eta irakasleak euskalduntzen egiten den eta egiten den esfortzua batere gutxietsi gabe, Imazen ustez arlo ez-formalean ere asko egin daiteke, “beti esaten dugulako eta iruditzen zaigulako eskolak berak bakarrik ezin duela”. Horregatik, hiru gako azpimarratzen ditu: espazioaren garrantzia, eskola-komunitatearen parte-hartzea eta gainerako eragileen inplikazioa. “Espazioaren garrantzia aipatzean esan nahi dudana da eskolako espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzea. Hau da, ikasle askorentzat eskola da euskararen erreferente bakarra, eskola da euskara entzuten eta hitz egiten duen espazio bakarra. Horregatik, uste dugu eskolako espazioa goizeko 8etatik arratsaldera arte aprobetxatu behar dela. Eta nola ez, gela barruan egiten dena gelatik kanpora egiten denarekin koordinatuta egotea lortu behar dugu”. Bigarren gako gisa eskola-komunitatearen parte-hartzea aipatu du: “Familiak eta guraso elkarteak giltzarri dira. Uste dugu familien parte-hartzea onuragarria izan daitekeela euskararen normalkuntzan, eta orain, zailtasun bat daukagu: pandemia-garaian familientzat ez da erraza eskoletan, jolas-tokietan eta abar sartzea”. Hirugarren gako gainerako eragileen inplikazioa izanik, Imazen aburuz auzo eta herrietako



GAIA: HANDIRA JOKATZEKO GARAIA DA



gainerako taldeekiko elkarlana funtsezkoa da, eta udalak oso eragile garrantzitsuak izan daitezkeela euskararen ezagutza eta erabilera hedatzeko lanean. “Horien guztien arteko koordinazioa da giltzarri, elkarlanean jardun behar dute eskolak, familiek eta udalak. Eta hori dena sistematizatzea, esperientziak partekatzea eta besteei jakinaraztea garrantzitsua da”.

Tellituk ere familien parte-hartzea ezinbestekotzat du, besteak beste, hizkuntza-proiektua familiek babestua izan behar dutela adieraziz. “Horrek izugarritzko garrantzia du, seme-alaben garapen eleanitzaren alderdi guztietan inplikatatu behar direlako familiak eta proiektuaren protagonista sentitu. Familia bakoitzak bere aletxo jar dezake euskalduntzea bultzatzeko; adibidez, txiki-txikitatik euskal kultur produktuak kontsumitzea eta giro bat sortzea eremu horretan”. Ados egon arren, Ormazabalen iritziz familiei egiten zaizkien eskakizunekin tentuz ibili behar da: “Kontuz, familiek mugak dituzte, ez euskaraz dakiten edo ez, baizik eta mugak dituzte denboraren aldetik. Beraz, kontuz zer eskatzen diegun”.

Salaberriaren ustez, familia eskola tandemak sustatu, indartu eta koordinatu egin behar da, “zeren familiek eta eskolek elkarrekin egiten dugun bidea askoz hobea da zalantzarik gabe ikasleentzat. Eta baita profesionalontzat ere. Zeren profesionalak zer bilatzen du? Bere jardunaren ongizatea. Nik neure lana ongi egiten dudanean ondo sentitzen naiz. Beraz, bide partekatu horretan sakontzen asmatu behar dugu”.

- Arlo emozionala: “Ikasleen arteko harremanak euskaraz izatea lortu behar dugu. Eta hau hori emozioen bidez egin behar dute. Euskara haien garapen pertsonalerako oinarritzko elementu izan daitekeela ikustea lortu behar

dugu”, EHiko lehendakariaren ustez, eta xede horri begira garrantzitsutzua da harentzat euskal curriculum lantzea. “Euskalduntzea, euskara ezagutzeaz gain, euskal gizartean sortu eta egokitu diren kultur adierazpen nabarmenenak barneratzea da, eta, horretarako, ezinbestekoa da euskal curriculum garatzea. Zeren, aitor dezagun nerabeen artean badagoela euskararekiko atxikimendu falta bat duten garai bat. Horregatik, ikasle horiek euskal curriculumak ematen dituen ideiak barneratzea lortzen baldin badugu, gero, beranduago, ereindako hazia berreskuratzeko aukera egongo da”.

- Ebaluazioa: *Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen* proposamenen ikasleen euskara maila neurtzeko ebaluazioa nola egin ere zehazten da, eta lau mahaikideen ustez, garrantzitsua da, besteak beste, derrigorrezko hezkuntza bukatzen dutenean froga bat egitea. Une honetan LH4-n eta DBH2-n egiten dira ebaluazioak, baina hasieran eta bukaeran ez. “Eta hori gabezia handia da, ez baitakigu zein den gure ikasleen ibilbidea. Askotan ez dakigu egiten ari garena ondo egiten ari garen edo ez. Eta horrelako ebaluazioak onak dira hobekuntza bide bezala”, Tellituren iritziz. Gainera, EHIGEko koordinatzailearen ustez, “horrek ikusaraziko liguke zer behar dauden ikastetxe bakoitzean eta helburuak lortzeko zein baliabide behar diren”.

Erronka mardulak dira, baina denak daude konbentziturak bidea hori dela euskararen unibertsalizazioa lortuko bada. “Aurrera begira proiektatu behar dugu, eta gizarteko eremuan eta irudian egiten dugun bezala, hizkuntzarenean ere handira jokatu behar dugu, bada garaia daukagun ahalduntze-gaitasun hori euskararen zerbitzura jartzeko”, dio Salaberriak. “Ikastetxeak ahaldunduta daude eta ekarpen handia egin dezakete arlo honetan. Horregatik, hezkuntzak, euskararen esparruan, handira jokatu behar du”.



“Ebidentziak egon badaude irakaskuntzan protokoloak malgu daitezkeela esateko”

ELKARRIZKETA: HATSA BATZARRA

BAZTAN-BIDASOAKO HEZKUNTZA-KOMUNITATEA

Irailean ezarri behar ziren protokoloek marrazten zituzten eszenatokiez kezkatuta, hainbat irakasle eta familia elkartu ziren Baztan-Bidasoako Hezkuntza-Komunitateko Hatsa Batzarra izenpean, irakaskuntzako protokoloak aztertu eta horien malgutzea eskatzeko. Lau hilabete geroago eta ebidentzia zientifikoetatik harago eskoletan izan den esperientzia eta haurren kutsatetasia txikia ikusita, are irmoago aldarrikatzen

dute eskoletan hartzen ari diren neurriak gehiegizkoak direla. Bereziki hiru puntu malgutzea eskatzen dute: hamaiketako kanpoan egitea, musukoaren erabilera murriztea eta materiala partekatu ahal izatea. Hatsako Batzarreko Gorka Rodriguez eta Joserra Lopez Berako Ricardo Baroja eskolako irakasleak eta eskola bereko guraso eta Irungo Lekaenea eskolako irakasle Nerea Rodriguez elkarrizketatu ditu **Hik Hasik**.



Noiz eta zergatik sortu zenuten Baztan-Bidasoako hezkuntza-komunitateko Hatsa Batzarra?

Gorka Rodriguez: Ikasturte berria hastear zela, dagoeneko ezagutzen genuen COVID-19ari aurre egiteko Nafarroako eskoletan ezarritako protokoloa, eta irakurritakoak irakurrita eta entzundakoak entzunda, nik neuk beldurra eta, aldi berean, tristura handia sentitzen nituen protokolo hark uzten zuen eszenatokia irudikatzean. Antzeko sentimenduak partekatzen genituen hainbat irakasle geunden inguruan eta elkartu egin ginen eta hainbat ekintza antolatzen hasi ginen.

Joserra Lopez: Hasierako deialdia abuztuaren 3rako egin genuen. 20 pertsona elkartu ginen, eta nahiz eta deialdia irakasleentzat egin genuen, familia batzuk ere etorri ziren. Hiru lan-talde sortu genituen: komunikazio taldea, ekintza eta talde eragilea. Bilera bakoitza toki batean egiten hasi ginen, Bortzirietan, Malerrekan, Baztanen... Gero, COVID-19aren aferak denbora batez herrien arteko mugikortasuna hainbeste konplikatu duenez, momentu honetan Beran ari gara egiten bilerak, eta ahal dugunok etortzen gara. Batzarreko kideok oso argi dugu mugimendu honetan gaudenok irakaskuntzan zentratu

nahi dugula. Hasierako bileretan parte hartzen zuten hainbat pertsonak zabalago eragin nahi zuten gizarteko beste esparru batzuetan, baina badira horretan ari diren beste talde batzuk eta Hatsa Batzarra irakaskuntzara mugatzen da, nahiz eta harremanetan egon beste talde batzuekin; Su Txikien taldean gaude Haurrak Ere Bai eta haurren eskubideen defentsan ari diren tokian tokiko hainbat talderekin.

Funtsean, zein da Hatsa Batzarraren aldarrikapen nagusia?

J. L.: Iruditzen zaigu ebidentziak egon badaudela esateko irakaskuntzan malgu daitezkeela COVID-19ari aurre egiteko ezarri diren protokoloak, eta Hatsa Batzarra horretan zentratzen da. Are gehiago, lau hilabete hauetako esperientziak erakutsi digu haurrak ez direla kutsatzaile handiak eta, gaixotuz gero ere, sintomak arinak izaten direla; aldiz, protokoloek ezartzen dituzten neurriak oso zorrotzak dira. Beraz, ikerketak eta esperientziak erakusten digute neurriak gehiegizkoak direla eta protokoloak malgu daitezkeela. Hori da Hatsa Batzarraren aldarrikapen nagusia.

Martxotik eskolak itxita, eta ekaina bitartean eskolak online moduan

etxetik eman eta jasotzeak, zer-nolako eragina izan du zuen ikusmoldean?

G. R.: Hatsa Batzarraren lehenengo bilera abuztu bukaeran egin bagenuen ere, aurretik bagenuen kezkarik. Kontua da aurreko ikasturtea nola edo hala aurrera atera genuela beste irakasle guztiek bezala, eta ahal zen bezala bukatu genuela hain arraroa eta ustekabekoa izan zen ikasturte hura. Baina, aurrera begira, ikasturte berria hasi aurretik ezagutu ahal izan genuen protokoloa, eta irudikatzen genuen eszenatokiak benetako kezka sortu zigun, nahiz eta gero aldatzen joan diren neurriak etengabe. Baina ikasturte berriari begira protokolo hain zorrotzak ekartzen zizkigun sentimendu eta kezkegatik hasi ginen bereziki elkartzen lantaldea irailean.

'Pupitre isolatuak' ekintza egin duzue berriki, Baztan-Bidasoatik harago eta oihartzun handia izan du hamaika herritan haurrak eskoletan bizitzen ari diren egoeraren inguruko ekintza horrek. Zein zen helburua?

Nerea Rodriguez: *Pupitre isolatuaren bitartez modu metaforiko batean ikusarazi nahi izan dugu hurrek eskolan bizi duten egoera. Beraien pupitrean isolatuak daude haurrak gure eskoletan eta, hain zuzen ere,*

horregatik jarri genituen kordel batetik kanpora beraien jostailuak eta eskolako erremintak beraien eremutik kanpo. Protokoloen ondorioz, haurrek bizi duten egoeraz sentsibilizatu nahi genituen herritarrak.

J. L.: Haurrei kontaktua, jolasa eta arnasa — arnasa murriztu egiten diete musukoarekin bost orduz egon behar dutenean — debekatzen dizkietela salatu nahi genuen, eta horiek dira, hain zuzen ere, Hatsa Batzarrak protokoloetatik malgutzea eskatzen dituen hiru puntu nagusiak.

Aurretik, hainbat ekintza egin dituzue. Sinadura-bilketa bat izan zen lehendabizikoa. Dokumentu hark zioen protokoloetan ezarritako neurriak ez direla justifikatzen ikuspuntu mediko-zientifikotik, “gaixotasun horri buruzko egungo ezagutzaren eta ikerketa berrien emaitzen arabera”. Horrez gain, honakoa salatzen zenuen: “Haurren bizi-beharrekiko eta oinarrizko eskubideekiko erabateko sentsibilitate-falta” dutela neurriek eta “askoz ere ondorio kaltegarriagoak ekar ditzakete[la] neurri horiek, kutsatzeak berak baino, dagoeneko krisi honek gogor kaltetutako haur eta gazteengan”. Zer-nolako harrera izan zuen adierazpen hark?

N. R.: 800etik goiti sinadura jaso ziren eta ondoren Nafarroako Hezkuntza Departamenduan aurkeztu genituen. Sinadura horiekin guztiekin Hezkuntza Zuzendari Nagusiari bilera bat eskatu zitzaion protokoloak berrikusi ahal izateko, baina ez dugu erantzunik jaso.

J. L.: Sinadura-bilketaren ondotik, Nafarroako ikastetxeetako zuzendaritza-talde guztiak gonbidatu genituen protokoloak malgutzera. Eredu bat bidali genien protokolo hainbat puntu gehiegizkoak zirela justifikatzeko arrazoiekin, zuzendaritzek eurek Hezkuntza Departamendura bidaltzeko. Zuzendaritza-talde ugariak gutuna bidaltzea lortu genuen, eta era horretan, zuzendaritzek onartzen zuten *de facto* hemen Nafarroan 6-12 urte bitarteko haurrak kalean musukorik gabe egon daitezkeenean eskola-garaian patioan musukoarekin egon beharra inkoherentea dela; hamaiketako kanpoan egitea eskatzen

zen Lehen Hezkuntzan ere (Bigarren Hezkuntzan hala egiten dute dagoeneko); eta materiala atera ahal izatea eta partekatzea.

G. R.: Horrez gain, zentro bakoitzak bere testuinguru propioa duela ikusita, ikastetxe bakoitzak bere testuingurua aztertzea gonbidatu genituen eta guk adibide moduan puntu batzuk bidali bagenituen ere, bakoitzak bere kasu zehatzak berrikusi zitzaizala. Gure kasuan, Beran zehazki, klaustrokide guztien adostasuna lortu zuten puntuekin bidali genuen eskutitza Nafarroako Hezkuntza Departamendura neurri horiek malgutzeko eskatuz.

Zein puntu ikusten dituzue protokoloan ezinbestean malgutu beharko lirakeenak?

J. L.: Maskararen erabilera, hamaiketako kanpoan egitea eta materiala partekatu ahal izatea lirakeke puntu nagusietako batzuk Nafarroako eskoletan ezarri den protokoloari begira malgutzera eskatzen ditugunak. Musukoari dagokionez, hemen Nafarroan kontraesana nabarmena da, adibidez: 12 urte arte haurrek ez dute kalean derrigorrez musukoa erabili behar, aldiz, 6 urtetik aurrera patioan musukoarekin derrigorrez egon behar dute. Guk patioan derrigorrezkoa ez izatea eskatzen dugu 12 urte arte musukoaren erabilera. Hamaiketakoarena ere puntu garrantzitsua da: hamaiketako Lehen Hezkuntzan gela barruan jaten da (Bigarren Hezkuntzan ez), eta gutun hartan esaten genuen askoz logikoa dela hamaiketako kanpoan jatea, hain zuzen ere, kutsatzeko arrisku handiena gela barruan dagoenean eta goiz osoa bertan eman dutenean. Maskara kendu behar duten momentua izanik, askoz egokiagoa ikusten dugu hamaiketako kanpoan egitea. Era berean, eskatzen genuen materiala patioan atera ahal izatea, gero kalean partekatzen dute-eta.

G. R.: Musukoari dagokionez, baita ere, hasieratik eskatzen dugu haurren artean metro eta erdiko distantzia egonik, ez egon behar izatea egun osoan musukoarekin.

N. R.: Maskararen erabileraren inguruan betebeharrak desberdinak dira Nafarroan eta Euskal Autono-

“Ikasle askoren egunerokoa oso gogorra da, haietako asko logela batean bizi dira familia osoa, eta agian ez daukate leihorik ere. Beraz, baldintza horietan edozer gauza eskertzen dute. Baina ezin dugu horretan gelditu”

“Irakasleok, neurri handi batean, filtera egiten ari gara protokoloen aurrean, haurrak ongi egon daitezten”

“Protokolo honek aukera ematen du, nahi izanez gero, oso diktatoriala izateko. Beldurraren izenean, garai bateko hezkuntza-eredura itzultzeko arriskua daukagu. Zorionez, irakasle gehienok ez gara horrelakoak eta ez zaigu eredu autoritario hori gustatzen”



mia Erkidegoan. Nafarroan eskolara itzultzeak bazeukan puntu gogor bat, zeren 12 urte artekoek uda guztia musukorik gabe igaro zuten eta eskolara iristean musukoa erabiltzera behartuak zeuden; eta ondotik, eskolatik aterata ken zezaketen berriro. Bazegoen arriskua musukoa eskolarekin lotzeko. Lehen ere egon bazeuden eskolara joan nahi ez zuten umeak eta haientzako zama bat gehiago izan da musukoarena. EAEn desberdina da, han etxetik atera orduko maskara derrigorrezkoa dute 6 urtetik gorakoek.

Kontingentzia-planek kontraesanak dituztela ikusaraztea izan da zuen lan-lerro garrantzitsu bat. Zein lirasteke kontraesan nabarmenenak?

J. L.: Ikastetxeen kopuru handi batek protokoloa ez du ehuneko ehunean betetzen, hasteko, ezinezkoa delako, kasu askotan ez dagoelako baliabiderik, neurrien kasuan, esate baterako. Kontraesanak maila guztietan daude: ikasleak ezin dira beste taldeetako ikasleekin nahasi, ezin dute elkarrekin jolastu; baina autobusean elkarren ondoan joan daitezke, adibidez. Jantokian elkarren ondoan egon daitezke (metro eta erdiko distantzian ahal denean), musukorik gabe.

Irakasleok neurriak bete eta betearazi behar ditugu, eta, hori egin ezean, espedientea zabalduko digutela jakinarazi digute. Baina administrazioa baldin bada neurriak betetzen ez dituen, ez da deus gertatzen. Neurri horietariko beste bat ikasleak metro eta erdiko distantzian egotea da. Baina gela askotan ezin da bete... Kasu horietan, neurria ez betetzeak ez dakar ondorioz. Bestetik, kontingentzia-planetan behin eta berriro esaten zaigu ezin dela materiala partekatu, ikasle bakoitzak berea izan behar duela eta gelako material komuna ezin dela erabili, baina, bat-batean, esaldi bakar batean jartzen du ezinbestekoa denean materiala partekatu ahal izanen dugula. Horrelako adibide aunitz daude.

Kontraesanez gain, protokoloko hainbat puntu ez direla argiak diozue; horrek interpretazio aunitz ekar ditzake, ezta?

J. L.: Protokoloan badaude hainbat puntu ez daudenak oso argi. Esate baterako, Nafarroan ez dago argi Gorputz Hezkuntzako ikastorduan zer gertatzen den musukoarekin. Kirol ekintzak egiteko garaian musukoa ez denez derrigorrezkoa, eskola batzuek ulertzen dute Gorputz Heziketan ez

dela derrigorrezkoa; beste batzuek, berriz, erabiltzera behartzen dute. Irteerak egiteko garaian ere ez dago ezer zehaztua; gurasoak ezin dira eskolan sartu, baina irteerak kanpora egiten direnez, ulertzen da gurasoek lagundu dezaketela? Protokoloan ez denez agertzen, ikastetxe batzuetan ez dituzte irteerak eginen, aldiz, beste batzuetan, bai.

Gurasoen kasuan, hasierako protokoloaren arabera, ezin ziren ikastetxera ezertara sartu (protokoloaren berri emateko bilerara justuki sartu ahal izan ziren), gero baimena eman zen sartzeko eta gero berriro kendu egin da eta ezin dira sartu. Zorarena da! **N. R.:** Jakin arren kanpoan eta aire librean kutsatzeko arriskua txikiagoa dela, Erkidegoan zailtasun are handiagoak dituzte ikastetxetik ateratzeko edo irteerak egiteko. Talde handiekin bi heldu atera behar dira, baina gurasoek ezin dute lagundu, burbuilak hausten direlako, eta irakasleen artean moldatzea kasu askotan ezinezkoa da, baliabide faltagatik. Bitartean, Musikako irakaslea ibil daiteke ikastetxe guztian goiti beheti, gelarik gela, burbuilak hautsiz. Burbilen puntua ere halamoduzkoa da: gure ikastetxean [Irunen], esate baterako, Erljioa emateko haur gutxi

dagoenez, gelak nahasten dituzte, lehenengo eta bigarren maila, esate baterako, elkarrekin jartzen dituzte. Bestela ezin ditugu deustarako nahastu, baina gero gela barruan elkartzen dituzte saio bat egiteko. Inkoherentzia handiak ikusten ditugu egunero.

Protokoloak zer aukera uzten dio ikastetxeari neurriak bere errealitate egokitzeko?

J. L.: Ikastetxetik ikastetxera, protokoloa oso modu desberdinean aplikatzen dela ikusten dugu. Batzuetan oso modu zorrotzean, eta beste batzuetan, malguago. Horrek badauka zerikusia ikastetxearen taiminarekin, alde batetik. Nafarroan ikastetxe asko txikiak dira. Baina badu zerikusia, baita ere, ikuskariarekin. Puntu berbera, ikuskari baten arabera eskola batean malgutzen da eta beste ikuskari baten arabera, beste eskola batean, ez da malgutzen; ikuskariak ere euren irakurketak egiten dituzte.

Horrez gain, protokoloak baditu zirrikitu aunitz, interpretazioei bide ematen dietenak: aipatu dugu ikasleek ezin dutela materiala partekatu esaten dela, baina *beharrezkoa* deanean, egin dezakete; norik erabakitzen du noiz den *beharrezkoa*?

Protokoloak protokolo, haurrak nola ikusten dituzue?

G. R.: Haurrak denetara ohitzen dira, gainera, ez daukate ahotsik. Hau egiteko esaten badiegu, hori egingo dute; eta kontrakoa egiteko esaten badiegu, bada hura egingo dute. Ez dute, gainera, kexatzeko espaziorik ere. Nork entzuten die hurrei? Agian bakarren batek botako du etxean purrustada, eta gurasoek entzungo diete, baina gehiago ez. Ezin dute kexatu.

N. R.: Haurrak eskolara pozik doazela eta etxera kontent itzultzen direla ikusita, uste dut, agian, guraso batzuk erlaxatu egin garela. Aurrera goaz eta pentsatu nahi dugu haurrak ez direla hain gaizki egongo. Dena den, haur batzuei ikusten zaizkie zailtasunak, lehendik ere erlaxionatzeko erraztasunik ez zeukaten umeen kasuan nik ikusi dut gehiago kostatzen ari zaien kasurik.

G. R.: Konfinamendua zein baldintzatan pasa duten, horrek badu era-

ginik. Hemen, Beran esate baterako, konfinamendua etxe handietan pasa dute haur askok, eta horrek oso zaila den egoera erraztu egiten du.

N. R.: Aldiz, haur eta nerabe askoren errealitatea oso bestelakoa izan da. Ikasle askoren egunerokoa oso gogorra da, haietako asko ez daude ezta pisu batean ere, logela batean bizi dira familia osoa, eta agian ez daukate leihorik ere. Beraz, baldintza horietan dauden familiek edozer gauza eskertzen dute. Baina ezin dugu horretan gelditu.

J. L.: Haurrak hainbeste denboran musukoarekin ibili behar izateak ni asko kezkatzen nau. Helduok askotan gaizki erabiltzen badugu, pentsa haurrek nola erabiltzen duten! Ukitzen dute, lurrera erortzen zaie eta berriro jartzen dute, ahoan sartzen dute, litzuz eta mukiz beteak edukitzen dute... eta hori da arnasten dutena. Eta horrekin egunero-egunero. Gainera, ez dakigu noiz arte egon beharko dugun musukoarekin; ez dakigu, ezta ere, hainbeste ordu jarraian musukoa erabiltzeak epe luzera zer ondorio ekar ditzakeen, ez daukagu ideiarik ere. 2-3 urteko umeen kasuan, esate baterako, euren bizitzaren zati handi bat musukoak ikusiz pasa dute, eta hori beldurraren adierazpena da, "ez dizut aurpegia erakusten erakustea arriskutsua delako". Haurrengan izugarrizko zama jarri dugu, gogortu behar dugu hasieran zer esaten zen haurren inguruan, eta eurek barneratu dute maskara jartzen ez badute norbait kutsatzen ahal dutela, edo amatxi hil daitekeela euren erruz, eta niri oso larria iruditzen zait haurrengan jarri dugun zama hori.

G. R.: Aurpegiak ikustearekin lotuta, guretzat puntu garrantzitsua da eta espreski eskatu dugu, maskara erdigardenak erabili ahal izatea haurrek eta ukatu egin digute. Badakigu, ordea, EAEn borrokatu ondoren utzi dietela hurrei eskolara maskara erdigardenekin joaten. Ezagutzen dugu kasurik, halako maskarekin joan haurra ikastetxera, hura gelatik atera, galdeketa bat egin, musuko hura ezin zela erabili esan eta gurasoa zuzendaritzan kexatu eta dokumentazioa bidali ostean, zuzendaritzak barkamena eskatu eta baimena eman diotena.

Eta familiak nola ikusten dituzue? Hatsa Batzarrean hasieratik daude familiak.

J. L.: Hatsara hurbildu diren familia guztiak bat datoz neurriak gehiegizkoak direla esatean, eta malgutzearen aldekoak dira. Horrez gain, badakigu beste guraso asko ere arduratuta daudela protokoloak gehiegizkoak direlako. Begibistakoa da helduek neurriez paso egin eta musukorik gabe egoteko tartekak bilatzen dituztela, baina haurrek ezin dute salto egin.

N. R.: Guraso askorengan beldurra agerikoa da: haurrek konfinamenduan pasatu duten guztiaren ondotik ez dute gehiago sufritzerik nahi, eta maskara erabili beharra ordu luzez sufrimendu bat bezala ikusten dute guraso askok, eta zalantza handiak dituzte. Beste askok, berriz, kutsatzeari diote beldurra...

G. R.: Hainbat lekutan gela bereko gurasoen arteko konfrontazioa sortzeko arriskua ekarri du egoera honek, eta baita gurasoen eta irakasleen artean sortzekoa ere. Pena da.

J. L.: Gurasoekin ebaluazio-bilerak eduki ditugu eta, nahiz eta gurasoak ados egon guk eskatzen dugun honekin guztiarekin, gehienek erratan dute haurrak gustura etortzen direla eskolara, eta horrekin lasai gelditzen dira. Badakite hau egoera gogorra dela haurrentzat, baina egokitu direnez, ataka zail honetatik pasa beharra bezala ikusten dute eta kito.

G. R.: Baina gurasoak kontent daude, neurri batean, protokoloa malgutasunez betetzen dugulako, eta haurrak ongi daude irakasleok protokoloaren zirrikituak baliatzen ari garelako ongi egon daitezen. Baina protokoloa zorrotzasan handiagoz beteko bagenu, seguraski haurrak okerrago iritsiko lirateke etxera eta gurasoak, seguraski, gehiago kexatuko lirateke. Irakasleok, neurri handi batean, filtro-lana egiten ari gara protokoloaren aurrean haurrak ongi egon daitezen.

Irakasleek lana nola baldintzatzen dute neurriek? Egoera honetan irakaskuntza berdina da?

N. R.: Oso gogorra da polizia-lana egin behar izatea. Ikasturtea hasi genuenean, adibidez, hainbeste den-



boran elkar ikusi gabe egon ondoren, besarkatzeko gogoz etortzen zitzaizkidan haurrak, eta baita euren artean elkar ukitzeko gogoz ere. Niri izugarri gogorra egin zitzaidan ez ni ez elkarren artean ukitu ezina eta polizia bezala ibili beharra.

J. L.: Protokolo honek aukera ematen du, nahi izanez gero, oso diktatoriala izateko. Beldurraren izenean, garai bateko hezkuntza-eredura itzultzeko arriskua daukagu. Zorionez, irakasle gehienok ez gara horrelakoak eta ez zaigu eredu autoritario hori gustatzen, baina egoerak ematen du aukera hezkuntza-ereduan atzerapausoak egiteko. Egia dena da eskolak orain arte bezala ematea ez dela erraza gauden egoeran, baina irakasleok ahalegina egiten dugu lehengo egoeran bezala ematera hurbiltzeko. Kasu batzuetan, ordea, nabarmen ez zaigu uzten: guk, esate baterako, taldeka lan egiteko aukera eskatu genion ikuskaritzari, eta egunean zehar tarte batez taldeka egoteko aukera soilik baimendu zigun eta beraz, guk momentu honetan ezin dugu taldelana behar beste egin. Inboluzio pedagogikoak ari dira gertatzen derrigorrez, urteetan egindako lan kooperatiboa, emozioen hezkuntza eta beste hainbat alorretan atzerapausoak egin dira.

G. R.: Baldintza hauetan irakaskun-

tza ez da lehengo berdina, ez noski. Baina ikustekoa izango da kanpo-azterketen eskakizuna berdina den ala azterketen eskakizun-maila egoera honetara egokitu ote den.

N. R.: Ikasle askorentzat oso zaila ari da izaten eskolekin aurrera jarraitzea, besteak beste, iazko ikasturtean ez zirelako iritsi gutxieneko helburuak betetzera, eta errepikapenaren neurria ezin zenez ezarri, aurrera jarraitu dute ikasle horiek, baina hutsune nabarmenarekin ari dira ikasturte honetan aurrera egin nahian.

Horrez gain, hizkuntzarekiko zailtasunak handiagoak dira. Haur askorentzat ikastetxea da euskarazko komunikazio egoerak gauzatzeko testuinguru bakarra. Ni LH3-ko irakaslea naiz eta atzerritik etorritako familietako ikasle asko dauzkat. Euskara-maila baxua dute eta musukoarekin komunikazioa zailtzen denez, hizkuntzak ikasteko garaian guretzat oso gogorra ari da izaten musukoaren erabilera.

Lau hilabete badira eskolak irekita daudela. Orain, zer sentipen dituzue?

G. R.: Hasieran beldurra ematen zuen eszenatoki hura ez da bete protokoloa malgutasunez betetzen dugulako eta zirrikituak baliatzen ditugulako. Irakasle asko saiatzten ari gara dena normaltasun baten barruan eskain-

tzen, ezer larria gertatuko ez balitz bezala jokutzen eta aurrera egiten. Eta esan dugu, haurrak denera egokitzen dira.

N. R.: Nik erlaxazioa ere ikusten dut. Onerako zein txarrerako. Hasieran, egia da, presio handia zegoen. Familien aldetik presio handia sentitzen zuten zuzendaritza-taldeek. Denborekin eta ikusita ez dela kutsatze asko izaten ari eta ez dela deus larria gertatzen ari, presio hori lasaitu egin da, zorionez. Baina, aldi berean, erlaxatu gara, baita ere txarrerako; haurrak ongi daudela ikusi nahi dugu eta ez dugu harago egiten benetan ongi egon daitezzen.

G. R.: Aldiz, posible da gauzak aldatzea. Adibide bat jarriko dut: Legasan eskola txikia daukate. Patioak bost gelak jaisteko aukera ematen du, baina euria egiten zuenean talde bat aterperik gabe gelditzen zen, eta hortaz, gela bat patiora irten gabe gelditu behar izaten zen. Gurasoak elkartu ziren eta kexatu ziren, ikuskaritzara kexa bidali zuten eta azkenean frontoia banatzeko onespina eman zieten. Kexatu ez baziren, haurrak gelan gelditu beharko ziren euria egiten zuen egunetan, denok dakigunean kanpoan askoz kutsatze arrisku txikiagoa dagoela. Hau da, denok ahotsa altxatuko bagenu erosotasunean egon beharrean, gauza gehiago aldatzea lortuko genuke, neurri asko gehiegizkoak baitira.

Lau hilabeteren ondoren, zuen helburu nagusia, une honetan, zein da?

J. L.: Lehenik eta behin, protokoloak malgutzea. Ahalik eta jende gehien sentsibilizatu nahi dugu aldarrikapen horrekin.

Gu geu, pertsonalki, konbentzituak gaude protokoloak dauden honetan kendu egin beharko liratekeela; lau hilabeteotan ikusi dugu ez dela ikastetxeetan kutsatze masiborik egon. Ikusi ahal izan dugu haurrak oso kutsatzaile txikiak direla, hasiera batean esaten zenaren guztiz kontra. Protokolo hau haurrak eta nerabeak transmisioan bektore garrantzitsuak direla pentsatuz egina dago, eta uste dugu nahikoa demostratua dagoela ez dela horrela, hilabete hauetako esperientziak argi erakutsi digu.

zientziaazoka

elhuyar da



Bizi
ikerketa

Elhuyar Zientzia Azoka

2020-2021



Izena emateko
epea zabalik
2021eko urtarrilaren
1etik aurrera
zientzia-azoka.elhuyar.eus

EMAN
IZENA!



Antolatzailea:

elhuyar
Zientzia

Babesleak:



Kolaboratzaileak:



ESPERIENTZIAK

'PATIO BAT, HAMAIKA AUKERA' ORIKO ZARAGUETA HERRI-ESKOLAN

Jabetu, amestu, eraldatu

Orioko Zaragueta herri-eskolak hiru urteko ibilbidea egin du ikastetxeko jolastokia eraberritzeko. *Patio bat, hamaika aukera* izenburuarekin, eskola-komunitate osoa biltzen duen parte-hartze prozesu batekin ari da eraldaketa gauzatzen. Oroz gain, espazioaren inguruko jabetze-, ameste- eta eraldatze-prozesua elkarbizitza-ariketa bat izan dela azaldu dute Ainhoa Zumeta irakasleak eta Cristina Olasagasti ikasketa-buruak.

Nora bezain garrantzitsua da nola. Nora iritsi bezain inportantea da bide hori nola jorratzen den. Bide lasterra har zezaketen helburura iristeko. Xedea eskolako jolastokia eraberritzea zenez, bide hori hartu eta bi ate joz —Udalarena, dirulaguntza eskatzeko, eta alorreko enpresa batena, obra egiteko— aldatu zezaketen jolastokia. Baina bide esanguratsuago bat hartu zuen Orioko Zaragueta herri-eskolak. Ikastetxeko jolastokia eraldatzeko ez ezik jolastokiaz jabetzeko eta amesteko, parte-hartze prozesu bat abiatu zuten. Eta prozesua bera helmuga bezain interesgarria eta aberasgarria izan da eskolako hezkuntza-komunitate osoarentzat. “Non sartu gara?”, esaten zion Cristina Olasagasti ikasketa-buruak Ainhoa Zumeta irakasleari, jolastokiaren eraldaketa-prozesuaren arduradunetako bati, lehen urratsak egin zituztenean. “Aterako gara”, erantzuten zion Haur Hezkuntzako maistrak. “Eta onik atera gara, eta bidean asko ikasi dugu”, dio orain, atzera begira jarrita, Olasagastik.



Hiru urteko ibilbidea egin du Orioko Zaragueta eskolako jolastokia berrietzeko. Hezkuntza-komunitate osoa inplikatu duen *Patio bat, hamaika aukera* izeneko parte-hartzeko prozesuari esker, eskolako ataria eraldatzeko lortu dute. “Proiektu erraldoi bat izan da, zeren denok hartu dugu parte. Eta bidea bera izan da aberasgarria, asko ikasi dugu. Jolastokiaz ari ginelarik, elkarbizitza ere aritu gara bete-betean”, azaldu dio **Hik Hasiri** ikasketa-buruak. “Orain daukagun

kanpo-espazioaren atzean, denon iritzia eduki da kontuan” —ondorioztatu du Zumetak—. “Ikasleak entzunak eta aitortuak izatea oso garrantzitsua izan da prozesu honetan, aintzakotzat hartzen ditugula konturatu dira”.

Hainbat beharrek eragin zuten Zaragueta eskolako jolastokiaren eraldaketa abiatzea eta garai berrietara egokitzea. Lehenik, Haur Hezkuntzan mugimendu autonomoa lantzen hasteak ekarri zuen barne-espazioak ez ezik kanpo-espazioak ere eraldatu



beharra. “Geletan egiten ari ginen eraldaketa horrek kanpoan ere isla izan behar zuela ikusten genuen”, azaldu digu ikasketa-buruak. Bigarrenik, hezkidetzeta-arrazoiak zeuden: “Kantxak garrantzi handia hartzen zuela ikusten genuen, eta konturatzen ginen kantxan zebiltzanak — ia denak mutilak — erdigunean zeudela eta ikasleen kopuru handi bat bazterreko espazio txikietan gelditzen zela — horien artean gehienak neskak, eta futbola gustatzen ez zitzaaien mutilak ziren — . Hezkidetzeta aldetik, beraz, jolastokiari buelta bat emateko premia ikusten genuen”. Hirugarrenik, ikastetxearen handitzeak ekarri zituen premia berriak zeuden: Zaragueta HHko eta LHko eskola izan zen bere hastapenetan, baina, DBH han egiteko aukera ireki zenean eraikina pixka bat handitu bazen ere, jolastokiak berdina izaten jarraitu zuen. “Ume gehiago izatearekin batera, beharrak asko aldatzen dira 2 urteko umeengandik DBHko 4. mailakoengana, eta horri ere erantzun behar genion”, azaldu du ikasketa-buruak.

Hiru faktore horiek bultzatuta, jolastokia berritzeko bideari ekin zioten. Baina eraldaketa ez zuten edozein modutara egin nahi; bazekiten prozesuak berak ere eraikitzailea izan behar zuela. “Inuzente-inuzente hasi ginen”, gogoratu du ikasketa-buruak. *Bikaintasunerantz* proiektuan, jolastokia eraldatzeko dirulaguntza txiki bat jaso zuten, eta Berritzegune-

ra jo zuten laguntza eske; Azpeitiko herri-ikastetxea eraldatzeko proiektuaren berri eman zieten han, eta, Azpeitikoekin harremanetan jarriarik, Tipi aholkularitza-enpresara jo zuten. “Tipik aholkularitza-lana egin zuen. Lehenengo urtean, prestakuntza eman ziguten irakasleoi eta guraso-elkarteko arduradunei. Talde dinamizatzaile bat sortu behar zela esan ziguten, eta etapa guztietako arduradunek egon behar zutela hor: zuzendaritza-taldea, Gorputz Hezkuntzako irakasleak, guraso bat eta ikasleen batzordea. Horiek osatzen dugu talde eragilea, proiektu guztia aurrera eraman eta eskola martxan jartzen duena”, kontatu du Zumetak.

Artean ez zuten oso argi ez nolako jolastokia nahi zuten, ezta nolako prozesua egin beharko zuten ere; baina ideia bat oso argi zuten. Ikasketa-buruak azaldu duenez: “Oso argi geneukan ikasleek izan behar zutela eraldaketa honen ardatz, eta egingo genuena ez zela ikasleentzako zerbait izango, baizik eta ikasleek egin behar zutela egin beharreko hori. Haiengandik sortutako zerbait izan behar zuela garbi geneukan, haiek izan behar zutela protagonista”. Eta bidelagun izango zen hezkuntza-komunitate osoa: irakasleak, irakasle ez diren eskolako langileak — “bereziki jangelako hezitzaileak, haiek egoten baitira jolastokian haurrekin gehien” — eta gurasoak.

Ikasleen iritzia jakiteko, ikasleen

batzordeak eratu zituzten, LH1-etik DBH4-ra bitarteko maila bakoitzetik bi ikasleek parte hartu zuten ikasle-batzordean, eta HHko haurren iritzia irakasleak eramaten zuen behar zen lekura. Ikasleen batzordeko kideek gelakideei azaltzen zizkieten proiektuaren urratsak tutoretza-orduetan, irakaslearen laguntzarekin eta *power point* baten sostenguearekin. Eta, ondoren, gelakideen iritzi eta proposamenak jaso, eta talde dinamizatzailean eramaten zituen ikasleen batzordeak. Aldi berean, irakasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen artean ere trukutzen zen informazioa.

Ikasleen batzordeko kide izan da eta da aurtengo ikasturtean Erlantz Martin, DBHko ikaslea. “Prozesu hau lehenengo pertsona bizitzeak protagonista sentiarazi gaitu, eta, gi-

"Oso argi geneukan ikasleek izan behar zutela eraldaketa honen ardatz, eta ikasleek egin behar zutela egin beharreko hori"

**Cristina Olasagasti
ikasketa-buruak**

ESPERIENTZIAK: 'PATIO BAT HAMAIKA AUKERA' ORIOKO ZARAGUETA HERRI-ESKOLAN

zarteko beste alor batzuetan gazteon ahotsa ez dela entzuten esaten dugun bezala, oraingo honetan aintzat hartuak eta entzunak izan garena esan behar dugu”, azaldu du. Haren egitekoa talde dinamizatzailaren eta bere gelaren arteko informazio-trukea bideratzea izan da, beste gelakide baten eta irakaslearen laguntzarekin. “Jolastokia oso gurea den gauza bat da, eta, orain, prozesuaren ondoren, geureago sentitzen dugu”.

Hiru fase izan ditu orain arte proiektuak: lehenengo, espazioaz jabetzeko lana egin dute; ondoren, espazioa amesteari ekin diote; eta, hirugarrenik, eraldaketa gauzatzen hasi dira.

Jolastokiaren alde onez eta ez horren onez jabetzen

2017-2018 ikasturtean, hainbat ekintza egin zituzten ikasleek eta irakasleek espazioaz jabetzeko. Orduan zeukaten jolastokitik gehien eta gutxien gustatzen zitzaizkien jabetzeko eta iritzia emateko garaia izan zen. Etapa guztietako ikasleek eman zuten iritzia jolastokiko guneen inguruan. Txikienen kasuan, hainbat material jarri zitzaizkien eskura astebetean, hala nola kartoizko kaxak, komuneko papera, ur-jolasak... jolastokia beste modu batera erabili ahal izateko. Ikasketa-buruak gogoan du jabetze-prozesuko ekintzak parte-hartzaile guztiei etorri zitzaizkiela ondo: “Futboleant ibiltzen zirenen kasuan,

esate baterako, jabetu ziren beste ikasleek zer behar zituzten; eta eurak erdigunean eta leku gehiena okupatuz futboleant zebiltzan bitartean besteek bazterretan eta espazio txikietan egon behar bazuten, ikasle horien beharrik ez zirela betetzen ikusi zuten”. Ekintzen bitartez besteekiko enpatia lantzeak dakarren aberastasuna nabarmendu du Zumetak ere: “Gorputzurik bizi izan zuten behar hori. Bestela, futboleant dabilenari esaten badiozu besteak bazterretan dituela, eraso bat bezala har dezake. Baina, horrelako ekintzekin, besteek lekuan jartzeko aukera izan zuten”. Eta ikusi zuten, baita ere, baloiarekin ibili gabe ere asko goza zitekeela beste ekintza batzuekin. Jolas-ordua bazterretan pasatzen zuten umeentzat ere garrantzitsua izan zen jabetze-esperientzia. “Era berean, izkintetan zeuden horiek ere ahaldu nahi genituen: ‘zuek leku pila bat hartzen duzue, eta guk ere nahi dugu’. Ordura arte, hori zen araua, eta guztiok onartuta bezala geneukan hala izan behar zuela. Eta, orduan, ikasle asko konturatu ziren euren eskubidea ere badela erdigunean egotea”. Erlantz Martinek ere, prozesuaren ondoren, are argiago ikusi zuen jolastokiaren erabilera desorekatua zela: “Jende asko dago futboleant ibili nahi ez duena, eta futbolak hartzen badu jolastokiaren erdia, horrek esan nahi du jende asko gelditzen dela lekurik gabe. Baloiak

gain beste aukera batzuk ematea denontzat izan da aberasgarria”.

Eskola-komunitate osoa jolastoki berria amesten

Eskola-komunitate osoa amesten jarri zuten bigarren ikasturtean, 2018-2019an; ikasle, irakasle, langile eta gurasoek hartu zuten parte ameste-fasean. Hasteko, hainbat galdera egin zituzten talde eragilekoek, hausnarketa gisa: eskolako espazio guztiak izaten ditugu kontuan? Eskola honen ezaugarrietako bat, hasieratik, adin desberdinetako kideen arteko harremanak sustatzea bada, betetzen al da helburu hori espazio horietan? Kantxarrik gabeko espazio bat imajinatu dezakegu? Talde handietan zein txikietan egoteko lekuak baditugu? Eskolako ikasle guztiak (2 urtetik 16 urtera bitartekoak) kontuan hartzen ditugu?

Baldintza batzuk ere kontuan izan behar zituzten, amesten hasi aurretik: genero-berdintasuna, esperimentaziorako guneak eta erantzunkidetasuna aintzat hartu behar zituzten amets egiteko. Kontuan izan behar zuten, halaber, Gorputz Hezkuntzak daukan behar batzuk ase behar dituela jolastokiak; eskola-kirola egiten dela ikastetxe honetan eta, beraz, eskola-kirolak ere espazio batzuk behar dituela; beharrezkoa zen klima ere kontuan hartzea, eta segurtasuna bermatu behar zuten instalazioek. Dirutan ere, mugak zituen proiektuak, Udaletik jasoko zuten dirulaguntza baitzuten muga.

Ikasle bakoitzak bere jolastokia irudikatu zuen, eta, amets indibidualetatik amets kolektiboetara, elkarrizketan eta negoziazio-lanetan jarri zituzten ikasleak Zaraguetan. LHn, esate baterako, lau taldeetan, haur bakoitzak bere ametsa azaltzen ziren besteek, eta, adostasun batera iritsi ondoren, lau talde horiek maketa batean garatzen zuten bere proposamena. DBHkoek, berriz, horma-irudi handi bat egin zuten talde-lanean.

Aldi berean, ikasleen prozesu horrekin batera, irakasleek eta langileek ere amestu zuten euren jolastokia, eta gurasoek ere bai. Lehendabizi, ohiko informazio-kanaletatik, *Patio bat, hamaika aukera* proiektuaren





berri eman zieten familiei, eta, horren ondoren, deialdi bat egin zieten egitasmoan parte hartzeko. Jaione Arrillaga, gurasoa, gustura joan zen ekimenera. “Pertsona aktiboa naiz, eta alabaren eskola-komunitatean parte hartzeko modu interesgarria iruditu zitzaidan”. Kopuruz talde handia ez bazen ere, inplikazio handikoa izan zela dio Zumetak: “Aberatsa izan zen, hiru etapetako gurasoak etorri zirelako eta gogotsu etorri zirelako; eta guraso-profila ere askotarikoa izan zen, baina bakoitzak bere lekua aurkitu zuen”. Aniztasun hori nabarmendu du Arrillagarek ere. “Adin askotako haurren gurasoak elkartu ginen, eta horrek behar desberdinak jarri zituen mahai gainean: HHko haurren gurasoek jolasteko lekuen premia ikusten genuen; DBHko nerabeen gurasoek, berriz, lasai egoteko lekuen premia azaldu zuten; denok elkarri entzutea oso enpatia-ariketa aberasgarria izan zen”. Halaber, eraldaketa bizitzea bera interesgarria izan da Arrillagarentzat: “Pixkanaka ari dira gauzak egiten, ez da aldaketa handirik egin egun batetik bestera, eta horrek aukera eman digu eraldaketa barrutik bizitzeko, denon artean egiteko; bi ohol eta soka bat jarrita, espazioa aldatu dela eta jolasa gehitu dela ikusi dugu, adibidez”.

Ikasle, irakasle, langile eta gurasoen ametsak Tipiren esku jarri zituzten,

eta diseinurako aholkularitza-zerbitzuak amets horiek *metabolizatu*, eta hainbat ondorio atera zituen. Gisa honetako premisak bete behar zituzten jolastoki eraberrituan: espazio guztiak baliatzea; elementu natural gehiago erabiltzea; estali gabeko futbol-jokalekua berrantolatzea; HHkoei gorputz-mugimendua lantzeko elementuak eskaintzea; ura erabiltzeko jolasak jartzea; LHkoei, kirolez gain, beste jolas batzuetarako espazio egokiak sortzea; agertoki txiki bat jartzea; DBHkoei lasai egoteko espazio intimoak sortzea...

Amestutakoa benetan aurrera eraman nahi zuten ala ez ziurtatzeko, proba bat egin zuten. “Paperean, gauza asko jarri genituen, baina ikusi egin nahi genuen ea amestu genuen horrek benetan funtzionatzen zuen ala ez”. Familiei eskatu zieten etxean zeukaten material soberakina —lorontziak, tutuak, uretako botak, gurpilak...— ekartzeko, eta, horrekin guztiarekin, hainbat gune prestatu zituzten jolastokian. Egun batean, zirkuari eskaini zioten eskolako txoko bat; gune lasai bat ere atondu zuten liburuekin eta margotzeko materialarekin; mugimenduari lekua egin zioten, hala nola futbolinari, badmintonari edo ping-pongari; antzerki-txokoa ere sortu zuten, eta baita eraikuntzakoa ere, kartoi, paper edota gurpilekin.... Materiala atera

eta jasotzea irakasleen ardura izango zen, baina materiala zaintzea, ikasleena. “Aurrez Birsortu proiektuan parte hartu genuen **Hik Hasirekin**, eta antzeko probaldi bat egin genuen. Bi astez egin genituen ekintza hauek, eta, tartean, euriak harrapatu gintuen; horixe da gure errealitatea, eta horrek ere lagundu zigun ikusten gure errealitatean zer egin dezakegun eta zer ez”. Materialak eta aukerak ugaritzearekin batera, haurren arteko giroa hobetu egin zela ohartu ziren: “Haur guztiek zeukaten zertan ibili, zertan jolastu, denentzat zegoen tokia, eta horrek liskarrak ikaragarri jaitsi zituen”. Espazioak eta aukerak harremanak nola baldintzatzen dituzten ikusi ahal izan dute proiektuan zehar. “Ezer baino gehiago, elkarbizitza-proiektu bat da espazioaren eraldaketaren atzean dagoena”, ondorioztatu du Zumetak.

Ametsak egikaritzen hasteko garaia

Ametsa paperean zeukaten, eta hurrengo urratsa, Tipikoek hala aholkatuta, udaletxeko atea jotzea izan zen. “2019-2020 ikasturte hasieran joan ginen Orioko Udalera, horrelako lan eskergak lehenengo hiruhilekoan egin behar zirela ikasi baikenuen bidean, eta abendua baino lehen, hurrengo urteko aurrekontuak itxi aurretik”. Udaleko hezkuntza-mahaiaik eta udal-taldeak begi onez ikusi zuten

ESPERIENTZIAK: 'PATIO BAT HAMAIKA AUKERA' ORIOKO ZARAGUETA ESKOLAN



PROZESUAN ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA:

- *Berdean hezi*, Heike Freire.
- **Hik Hasiren** 214. zenbakiko elkarriketa.
- *El sentido del asombro*, Rachel Carson.
- *Jugar al aire libre*, Katia Hueso.
- *El jardín de los secretos*, Penny Ritscher.
- *Parkeak biziberritzeko modu berriak*, Goiena.
- *Esencia (diseño de espacios educativos aprendizaje y creatividad)*, Siro Lopez.

proiektua; 15.000 euroko partida jarri zuten, eta arkitektoaren eta aparejadorearen laguntza izan zuten.

2020ko martxoan, COVID-19a etorri zen. Pandemiak eskola itxiarazi zuten, eta urratsak egitea eragotzi. Une horretan, aurrera jarraituko bazuten, talde dinamizatzailerak hartu behar izan zuten gidaritzza, eta, 15.000 euro haiekin, ikastetxe inguruko lurrak mugitzeari eman zion lehentasuna: porlana kendu, belarra jarri, magalak osatu eta irisgarritasuna bermatu, sarrerako koska kendu eta arrapala luzatu.

2020ko udan egin du obra Azpeitiko KimuBat enpresak, eta urrian estreinatu dute eremu maldatsu berria ikasleek. “Lasaitua hartu dugu — aitortu du ikasketa-buruak —. Ikusi dugu erabilgarria dela adin guztietako ikasleentzat: denak ibiltzen dira maldan gora eta behera jolasean. Batzuk kezkatuta zeuden, txikiak bakarrik erabiliko zutelakoan, eta ikusi dugu ezetz. Gehiago ibiltzen dira handiak, nik uste”. COVID-19ari aurre egiteko protokoloek behartuta, kanpo-espazioak txandakatu egiten dituzte ikasleek orain: Haur Hezkuntzakoak asteka mugitzen dira ikastetxe inguruko espazio batetik bestera; LHkoentzat, aldiz, sei gune dauzkate bereizita, sei maila baitira, eta gela bakoitza aldatu egiten da egunez egun. Eguraldi txarra egiten badu, barruko espazio, aterpe eta frontoietan sei gune banatzen dituzte. LHn eta DBHn gune bakoitzean zer material atera ikasleek erabaki dute


eta material horren ardura (garbiketa, jasotzea, zaintzea...) beraiena da.

COVID-19ak baldintzatu du *Patio bat, hamaika aukera* prozesua, eta baita dagoeneko eraldaturik dagoen espazioaren erabilera ere; baina Zaraguetako hezkuntza-komunitatea etxeko lanak eginda harrapatu du pandemiak. “Eskolako espazioen eta espazio horien erabileraren inguruan hausnarketa eginda harrapatu gaitu, eta, hausnarketa horren ondorioz, naturala eta lehentasuneko izan da guretzat kanpora gehiago ateratzea, hondartzara ateratzea, esate baterako. Eskola-orduak kanpoan egitea ere aurrez pentsatua geneukan, Naturaren Zientziak, Matematika edo Gizarte Zientziak kanpoko espazioetan lantzea”. Egoera berriaren aurrean nola eutsi Zaraguetaren filosofiari, hori izan dute erronka ikasturte berrian. “Aukeren bila joan gara; ezintasunen aurrean, izan gaitzen malguak eta egin dezagun ahal dugun hori. Lehen, hau egiten genuen; orain, gauden egoeran, badakigu muga asko dauzkagula, baina zer egin dezakegu?”. Esate baterako, psikomotritatearen garrantzia ikusirik, horretara bideratua ez zegoen gela bat psikomotritate-gela gisa atontzea erabaki dute, 2 urteko haurrek egunero psikomotritate-gelara joateko aukera izateaz gain, handiagoez, asteko txandak eginez eta garbiketaz bermatuz gela hori erabiltzeko aukera izan dezaten.

Testuinguru zail honetan, ikasleek eta irakasleek jolastokiaren inguruan lanean jarraituko dute aurrean

ere. Gela bakoitzak ikasturteko programazioan sartu du jolastokiaren eraldaketari ekarpen bat egitea. “Gela bakoitzak opari bat egingo dio jolastokiari, eraldaketa honetan aurrera jarraitzeko”, azaldu du Zumetak. HH2-koek, esate baterako, haizearen konoak egingo dituzte; HH5-ekoek txoritxoek jan eta edateko etxolatxoak egingo dituzte, LH5 eta LH6-koak rokodromoa egokitzeaz arduratuko dira; DBHkoek bankuak pintatuko dituzte... Gurasoeekin ere hainbat egitasmo burutu nahi dituzte auzolanean; baina egoerak baldintzatu du gurasoen parte-hartzea oraingoz. “Auzolana egitearen helburua bizikidetzat da, harreman-sareak sortzea eta indartzea da, azkenean hori baita proiektu honen guztiaren funtsa: elkarbizitza eta bizikidetzat izan dira gure ardatza”. Egoerak utzi izan balie, aurrerago egingo zuten kanpo espazioen erabileran: euritara katiuska eta zirekin ateratzeko asmoa zeukaten; barruko gela bat atondu nahi zieten DBHkoek gazteleku gisako leku batean lasai egoteko... “Lanketa guztia egin daukagu, eta paperean ditugu ametsak; aukera daukagunean, gauzatuko ditugu”, dio Zumetak. “Bidean, asko ikasi dugu —erantsi du ikasketa-buruak—. Hasieran, ez genekien zer-nolako lokatzean sartzera gindoazen, eta eskerrak! Zer-nolako lana izango zen jakin izan bagenu, beldurtu egingo baikinen!”. “Baina merezi izan du”, erantsi dio Zumetak. “Bai, bai, horixe baietz, asko ikasi dugu bidean”.

EZAGUTZA DA TXERTOIA



Aurten, bi sari Zientzia Gizartean sorkuntza-bekaren kategorian!

Oinarriak: **cafelhuyarsariak.elhuyar.eus**

Lanak bidaltzeko azken eguna: **2021eko otsailaren 12a**

Kontakturako helbide elektronikoa: **cafelhuyarsariak@elhuyar.eus**

ANTOLATZAILEAK



elhuyar
ezagutuz aldatzea

BABESLEAK

NEIKER
MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



EKARPENAK

ARTE-HEZKUNTZA

Nola birplanteatu aurtengo mozorroak? Arte-hezkuntza bidelagun

Urte asko dira hezkuntzan ikuspegi sozio-konstruktibista zabaltzen hasi zenetik; baina, tamalez, ezagutza “eraiki” egiten dela defendatzen duen ikuspegia ez da oraindik maila berean heldu ikaskuntzaren arlo guztietara. Jendarteak gehien baloratzen dituen arloetan garatu da gehienbat: hizkuntzan (idatzian batik bat) eta matematikan. Baina zer gertatzen da arte bisualen hezkuntzarekin?



LEIRE SAEZ
Haur Hezkuntzako
hezitzailea



IDOIA MARCELLAN
EHUko Arte Ederretako
irakaslea eta ikerlaria

Begiratu diezaiogun apur bat egungo egoerari: **zer jarduerara mota proposatzen ditugu?** Marrazki librea edo beste arlo batean lantzen ari garen gaiarekin lotutakoa, koloreztatzea, eskulanak, artisten lanak kopianak edo horien bertsioak egitea, horma-irudiak, edota hainbat teknika eta materialekin aritzea izan ohi dira ohikoena.

Zer helbururekin proposatzen

ditugu jarduerak horiek? Nagusiki, sormena bultzatzeko, emozioak adierazteko, materialak esploratzeko, psikomotrizitate fina lantzeko, apaintzeko, gozatzeko, errealtatea irudikatzeke, lasaitzeko, teknikak ikasteko, edota artistak eta haien lanak ezagutzeko.

Bat al datoz proposatzen ditugun jarduerak lortu nahi ditugun helburuekin? Egun eskoletan proposatzen diren jarduerak ohikoe-

nak honelakoak direla antzeman du Imanol Agirrek (Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea eta arte-hezkuntzan aditua), itzal batzuk agerian utziz:

- **Proposamen gidatu itxiak**, aldez aurretik emaitza erakutsita, prozesuaren pausoak instrukzio gisa proposatzen dituztenak. Zer-nolako sormena bultzatzen dute? Zer lortzen dugu horrela? Teknika batzuk ikastea? Etxera



Haur Hezkuntzako umeak oihalean usoaren hegoak margotzen usoen benetako argazkiei begira.

eramateko zerbait “polita eta figuratiboa” ekoiztea? Guz-tientzako material, pauso eta emaitza berberak proposatzen dituzten jarduerak ez dute aniztasuna aintzat hartzen, eta, horren ondorioz, uste dugu ezin dituztela sormena eta autonomia bultzatu. Pentsamendu exekutiboa baino ez dute garatzen (eskulanak eta *buru-lanak* behar dira); eta artearen funtzio dekoratibo hutsa erakusten dute, trebetasunari lotutakoa (*ondo eginda*). Bestalde, eskulanak edo koloreztatzeak marrazkiak egiteko aukeratzen diren ereduak ezaugarriak (sinplifikatuak, estereotipatuak, askotan sexistak) haurtzaroaren ikuspegi sinple eta pobreaken isla dira.

- **Artisten lanak imitatzeko edo bertsiak** egiteko proposamenak. Agirrek “arte irakasteko” joera horrekiko adierazten duen kezka partekatzen dugu: eredu erreproduzitzaila da, lantzeko artisten aukeraketa oso mugatua da (batik bat hildako margolari abstraktuak lantzen dira), “jeinu sortzailearen mitoa” indartzen du, eta haurtzaroaren ikuspegi edulkoratuak islatzen du.
- **Jarraibide eta eredurik gabeko jarduerak (“libreak”).** Umeen rol aktiboa onartzen

denez eta erantzuna bakarra ez denez, aniztasuna aintzat hartzen da. Baina aipatutako autoreak 1997an jada **Hik Hasik** argitaratutako monografiko batean aldarrikatzen zuen legez: “*Marrazki librea, benetan librea?*” Zer ideia, irudi eta gai izango ditu buruan umeak bakarrik uzten dugunean? Azken batean, nondik dator sormena? Teoria innatistek jaiotzetiko gaitasuna dela defendatzen dute, berariazko lanketarik behar ez duena, eta kutsatuko gaituzten irudietatik babestu beharrekoa. Artea nork bere emozioak adierazteko tresna gisa ulertzen da. Baina, pertsona guztiak gara sortzaileak *maila berean arlo guztietan*? Askotariko adimenen teoriari jarraituta, denok ez dugu gaitasun bera abesteko, idazteko edo marrazteko, eta arlo guztiak landu eta garatu daitezke. Konpositoreak oso sortzaileak dira txikitik musikaririk entzun ez dutelako? Eredu mugatzen dute gure sormena? Gure ustez, eredu pobre eta estereotipatuak kaltegarriak dira, baina kalitatezko ekoizpen artistikoen gure imajinarioa aberasten dute, arlo bisualean edo beste edozeinetan. Gainera, esan daiteke XXI.

mendean irudia dela pertsonak modelatzeko eta manipulatzeko tresnarik erabiliena. Neskek egindako marrazkietan, bihotzak eta loreak sarriegi agertzen dira; mutilenetan, pilotak eta kotxeak. Egun, helduok besterik eskaini ezean, pantailak eta publizitatea, oro har, dira umeen imajinario bisuala elikatzen dutenak (Disney, Clan edo Youtube, besteak beste). Beraz, “libre” al da haur bat paper zuria baten aurrean? Nork ematen die forma haurren desioei?

Ekimen berrietarako proposamenak Egoera honen aurrean, **zer proposatzen dugu?**

Arte bisualen hezkuntzan ere, irizpide pedagogikoei heltzea, eta horiekin bat ez datozen jarduerak

Zer ideia, irudi eta gai izango ditu umeak bakarrik uzten dugunean? Azken batean, nondik dator sormena?

Arte bisualen hezkuntzan ere, irizpide pedagogikoei heldzea proposatzen dugu, eta horiekin bat ez datozen jarduerak ekiditea; esaterako, testu bat idazteko hizkiak diktatzen ez dizkiegun bezala, ekoizpen artistiko bat sortzeko, pausoak era itxian ez ematea.

ekiditea; esaterako, testu bat idazteko hizkiak diktatzen ez dizkiegun bezala, ekoizpen artistiko bat sortzeko, pausoak era itxian ez ematea, alegia, pentsamendua errespetatzea. Gainera, artea “desberdinari” irekita dago; pentsamendu dibergentea berezkoa du. Hortaz, galdera ahalik

eta irekietatik abiatuta, zabaldu diezaiozun bidea bilaketari, eraldaketari eta kolore guztietako erantzunei; *bidelagun* izanik, umeen pentsamendua laguntzeko, ez ordezkatzeko. Horrela, subjektibitateak eraikitzen lagunduko dugu.

Ilido beretik, helburu argi eta askatzaileak izatea (ez “zerbait polit egitea” edo “emozioak” bakarrik adieraztea): bizi duten mundu bisuala konprenitzea eta diskurtsoak sortzeko gaitasunak ahalbidetzea. Hizkuntza idatzia ez ezagutzeak ez gaitu librea go egiten. Idazten eta irakurtzen jakiteak bezalaxe, kultura bisuala *irakurtzen* (interpretatzen), *produzitzen* eta *kritikatzen* jakiteak boteretsuago eta askeago egiten gaitu. Umeak *biluzik* uzten ditugu, inolako tresnarik gabe, **alfabetatze bisuala** landu ezean. Eta, gainera, XXI. mendean *komunikatzeko* erabiltzen den hizkuntza mota garrantzitsuenetako bat garatzeko aukera lapurtzen ari gatzazkie.

Horrez gainera, arteak eta kultura bisuala erabiltzea, arteak jokoan jartzen dituzten funtzio posible guztiekin: informatzea, salatzea, emozioak adieraztea, pentsaraztea, kritikatzeta, dekoratzea, jolastea, ikastea, gozatzeta...; margogintzaz harago, eskulturak, argazkigintza, instalazioak

eta abar bidelagun izanik. Bestalde, kultura bisualarekin uztartuta; izan ere, egungo haurren kultura bisuala motxiletan, kamisetetan edota kroemotan dituzten irudiz hornitzen da, eta uste baino eragin nabarmenagoa dauka haien nortasunaren eraikuntzan, irudi horiek ahalbidetzen dituzten eredu eta estereotipoak direla medio. Hona, adibide gisa, gure ikastolan landutako proiektu batzuk: elikagaien ontzietako ikurrak aztertu; jolasteko instalazioa muntatu; komiki baten ilustrazioak egin; antzerkia iragartzeko kartela sortu; injustziaren bat salatu; identitateaz hausnartzeko, animalia/pertsona hibridoak sortu; argia ikertzeko, itzal-eskulturekin esperimentatu; eta genero-rolak aztertu, ekoizpen artistikoei erreparatu, besteak beste.

Eta, azkenik, metodologikoki, **erronka** irekiak proposatzea: artisten ikerketetara hurbiltzeko aukera zabaltzea, arteari buruz baino gehiago artearen bidez ikasteko. Eta lanak, testuinguru batean kokatuta, inspiratzeko erabiliz, ez imitaziorako soilik. Azken batean, uste dugu **oreka** egon behar duela “jarraibiderik gabeko jardueren” eta “proposatutako erronken” artean, biak baitira garrantzitsuak sormena garatzeko.



Naroa kakalardoaren hankak mozten eta antolatzen.



Hezitzaileen laguntzaz 2 urtekoek materialak aukeratuaz sortutako "bxori" mozorroak.

Inauterietan ere, pentsamendua erdigunera

Inauteri sasoiaren, Plastika orduak mozorroren prestaketara bideratzen dira ikastetxeetan sarritan, eta lehen aipaturiko ezaugarriak nagusitzen dira: “politikak”, ahalik eta “figurati-boenak”, eta, askotan, “uniformeak” izatea bilatzen dugu; eta horregatik, beharbada, erositako material asko erabiltzen dugu. Mailaren, ikastetxearen eta hezitzailearen arabera aldatzen den arren, maiz umeez ez dute ia ezer pentsatzen ezta erabakitzen ere: ez gaia, ez diseinua edo patroia, ezta materiala ere. Eta, sarritan, presaz ibiltzen gara inauterien prestaketekin —azken orduan—, eta horrek egun bateko edo egun gutxiko jarduera bakartua izatea ekar dezake.

Nola txertatu mozorroren prestaketan arte bisualen hezkuntzaren begirada gaurkotu bat?

Bada, denboraz, sormen-prozesu geldo eta aberatsak martxan jarritz, arrasto sakona utziko dutenak, eta, lehen esan bezala, **irizpide pedagogikoak** ahaztu barik: askotariko mozorroak eginez; ekoizpena proiektu edo ikerketa zabal baten barruan kokatuz, *zentzua* izan dezan; umeei erabakitzeko aukera emanez, *autonomia* garatu dezaten; eta hutsegitea aukeratzat hartuz, norik bere *ezagutza eraiki* dezan.

Helburuei dagokienez, lor daitezkeen artean, hauek azpimarratuko ditugu: benetako funtzio praktikoa izango duen ikerketa bisual batean murgiltzea; ekoizle bisual aktiboaren rola bizitzea; pentsatzeko, analizatzeko eta planifikatzeko gaitasuna garatzea; nortasun- eta gustu-aniztasuna balioestea; prozesuan beste arlo batzuetako edukiak lantzea (distantziak, formak, hizkuntza, adosteko estrategiak, emozioak, historia, natura, zientzia, etab.); eta balio hezitzaileak bultzatzea, adibidez,

naturaren zaintza eta kontsumismoari aurre egitearen garrantzia, ahalik eta material berrerabilgarri gehien erabiliz (gelan ditugun hondarrak, familiei eskatutako kutxak, oihal zaharrak edo egunkari-paperak).

Zer irudi edo eredu bisual erabili ditzakegu?

Alde batetik, argazkiak, bideoak edo objektuak, irudikatu nahi dugun izaki, pertsonaia edo objektuaren itxura erreala aztertzeko; eta, beste aldetik, ekoizpen artistiko garaikideak, inspiratzeko. Egund, Internetera jotzen dugu edozertarako, eta uste dugu komeni dela ekiditea “xxxx-ren mozorroa” bilatzea, horrek *bidea* egiteko aukera ezabatu, eta emaitza pobre eta estereotipatura eramango gaituelako zuzenean. Horren ordez, “animaliak arte garaikidea”, “frutak artista garaikidea”, “sport contemporary art” erako bilaketak egin ahal ditugu, ez erantzunen bila, baizik eta gure ideiekin endredatuko diren argi edo pisten bila; testu bat idaztera goazela, beste autore batzuen testuak irakurtzen ditugun moduan. Horretarako, berdin balio dute margolan, argazki, eskultura edo instalazioek ere.

Nola lagundu dezakegu sormen-prozesuan?

Hasteko, ahal dela, umeez gaia, edo azpigaia behintzat, erabaki dezakete, eta agian talde berean mozorro bat baino gehiago egiteko aukera sor daiteke, aniztasunari bidea emateko. Gero, banaka edo talde txikietan, behar duten materiala aukeratu, eta “zer”, “zerez” eta “nola” pentsatzeko aukera eman ahal diegu, prozesua planifika dezaten (neurketa, patroia, probak, eta zuzenketak).

“Nolakoa da nire gorputzean irudikatu nahi dudana hori?”, “nolakoa izan daiteke?”. Ahal den neurrian,

subjektibitateari bidea eman behar diogu: “zelako kakalardoa izan nahi dut nik?”, “beltza edo beste kolore batekoa?”, “zenbat hanka ditu? Zelakoak?”, “zer behar dut, zer falta zaio nire gorputzari zuhaitz bilakatzeko?”. Nagusiekin galdera irekiagoak erabili ahal dira. Oso txikiak badira, helduak erabaki gehiago hartu beharko du, eta laguntza gehiago eman (mugak jarri, bidea errazteko); baina edozein adinetan, beti “erabaki”, “aukeratu” eta “egin” dezakete zerbait: “nahiago duzu oihala edo egunkari-papera?”, “non jarri nahi duzu hau?”. Horrez gain, zerbaitetarako laguntza behar badute (mozteko, lotzeko...), laguntza hori emango diegu, baina bestela ez; emaitzak ez du zertan “perfektua” edo “ondo amaitua” izan. Ez bada ezinbestekoa (edo haiek eskatuta), “gure eskua sartzeko tentazioari uko” egitea komeni da.

Xedea da umeei modua ematea euren lanaz harro eta pozik egon daitezen eta autonomiaz eta irizpidez burutu dezaten. Astindu ditzagun kultura uniforme, produktibo eta estereotipatuaren beldurrak. Aurten, “burbuiletan” ospatutako inauteri mugatuek, kalejirarik gabekoek, agian erraztuko digute atea ezezagunari irekitzea, normatiboa eta errotutako ohitura hori aldatzen hastea, apur bat arriskatzeta. Ezohikoa, berezia, arraroa, desberdina: horixe da “aberatsa” eta “ederra”.

Behin, ekoizpen artistiko garaikide batzuen aurrean, 5 urteko ume batek hauxe esan zigun: “Horiek existitzen ez diren lurraldeetan daude”. Joan gaitezen umeen eskutik oraindik existitzen ez diren lurraldeetara; utz diezaiegun kapitain-lana egiten, geuk ikusten ez ditugun ateak erakutsi eta zabaldu diezazkiguten.

Ondo pasa ditzazuela 2021eko inauteriak!!

GALDEIDAZU

PANDEMIAK UTZITAKO URGENTZIAZKO EGOERAN, ZER ALDARRIKATZEN ETA ESKAINTZEN DU HEZKUNTZA PLAZARAK?

Gogorra izan da 2020 urtea, Euskal Herrian zein munduan, COVID-19aren ondorioz, ziurgabetasunez betea, eta ez dakigu, aurrerantzean ere, zer datorkigun. Ezegonkortasun egoeran jarraituko dugula dirudi edonola ere, eta, oro har bezala, hezkuntzan ere, horretarako prestatu beharra daukagu.

Ikusi dugu COVID-19ak nolako astinaldia eragin duen hezkuntzan. Inork aurreikus ezin zezakeen egoera sortu, eta, hezkuntzan aurretik bizi genituen hainbat arazo eta arrakala sakondu eta azkartze-prozesuan jarri ditu, bai arrakala sozioekonomikoa, linguistikoa, kulturala zein genero ikuspegikoa. Lehenago bizi genituen egiturazko arazoak eta gure hezkuntza-sistemen ezintasunak, inoiz ez bezala, agerian jarri ditu pandemiak.

Horren aurrean, hezkuntza-komunitateen lan eta ahaleginak soilik bermatu du ondorioak larriagoak edota itzulezinak ez izatea. Irakasle, hezitzaile, ikasle, langile zein familien ahalegina izugarria izan zen pasa den ikasturtean eta horretan dihardugu ikasturte berrian ere. Baina, ez da nahikoa, egoeraren diagnostiko zorrotz bat eta horri aurre egiteko plan-gintza eta baliabideak behar dira, zeren horiek gabe ez dakigu noraino irits gaitezkeen hezkuntza-sistemek kolapsatu gabe.

Zentzu horretan, administrazio ez-



HEZKUNTZA PLAZARA EKIMENA



berdinen kudeaketa tamainako egoeraren aurrean ezegokia eta salagarria ere izan da, eta izaten ari da, inprobisazioz jokatzeko ari direlako, eta, oraindik ere, hainbeste hilabete pasa eta gero ere, planifikaziorik gabe eta neurri zein baliabide eraginkorrik gabe jarraitzen dugulako.

Egoera larria da, eta ikasturteari kezka handiz begiratzen diogu, ikastetxeetan langileen gainean egon da karga handiena eta heldu ezinean ibili dira. Gainera, protokoloen beharra ulertuta ere, baliabiderik gabe, hartu diren hainbat neurri izan lezaketan eraginkortasunak ere kezkatu egiten gaitu. Ikasleak dira honen guztiaren kaltetu handienak, beraien garapen integrala baita jokoan dagoena, eta baldintza hauetan hori bermatzea ezinezkoa da. Urgentziazko ondo landutako plana behar da eta hezkuntza-komunitatearen iritzia aintzat hartu behar da. Sakona da arazoa. Hezkuntza-sistemetan pandemia aurretik bizi ditugun arrakalak egiturazkoak direla uste dugu, eta beraz, tamaina bereko soluzioak behar dira.

Gogoeta horretatik abiatuta, kezka eta premia larria sentitzen dugulako sortu zen iaz Hezkuntza Plazara. Ekimen honen oinarrian, hezkuntza-komunitate ezberdinetako kideak gauden, pasa den ikasturte amaieran sortu ziren mobilizazio eta aldarrikapenen bueltan ibili ginenak, pasa den irai-

lean ere hezkuntza-eragileek deituta-ko ekimenetan parte hartu genuenak, ikastetxe batzuetan borroka propioak abiatu zituztenak, eta, bakoitzak bere eremuan eta bere eremutik ekarpena egin nahi dugunak, dena beharko baita gauzak eraldatu nahi baditugu. Izan ere horixe da gakoa: eraldatzea.

Hezkuntza Plazara Araba, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako herri zein auzoetako hezkuntza-komunitate guztien aktibazioarako deia da. Hezkuntza-eremuan bizi dugun egoera larriaren aurrean, protagonista zuzenak garen hezkuntza-komunitateon elkarlanerako deia ere bada. Horretarako, tokian toki irakasleak, hezitzaileak, ikasleak, gurasoak zein langileak elkarriketan jartzea ezinbestekoa dela uste dugu, elkarrekin gogoeta egitea, elkarrekin jardutea eta elkar zaintzea.

Horrez gain, hezkuntza ikastetxe barnean gertatzen den hori baino gehiago dela sinisten dugu, hortik harago ere prozesu hezitzaileak gertatzen direla badakigulako, eta denaz gain, gizarte ardura dela. Horregatik uste dugu, eta hala adierazi nahi izan genuen abenduaren 1eko mobilizazio egunean, herri eta auzoetan ahalegina egin behar dela ikastetxeetan dauzkagun egoerak eta bizi ditugun premiak barnebiltzen gaituzten komunitateekin partekatzeke eta auzo/herri eragile askotarikoak zein herritarrak ere gure aldarrikapenen partaide bilakatzeko.

Pandemiaren aurrean, aktibatu

Pandemiak hezkuntzan sortu duen egoeraren aurrean hezkuntza-komunitateak (pluralean) aktibatu, eta bizi eta pentsatzen duguna gizarteratzeko asmoz sortu zen Hezkuntza Plazara, eta horrekin batera, bestelako irtenbide batzuen bueltan indarrak biltzeko intentzior ere bai. Izan ere, gure ustez, posible zen eta da egoera hau beste era batean kudeatzea, posible da ikasleak eta hezkuntza-komunitateak erdigunera ekarri, eta, zentzu komuna oinarri izanda, beste bide batzuk urratzea pandemiaren ondorioz ez dezagun etorkizuna hipotekatu. Posible eta beharrezkoa da egoera honi erantzun integrala ematea, eta gure hezkuntza-sistemek aspaldian

noztizen dituzten agortze zantzuei irtenbide eraldatzaileak definitzen hastea.

Norabide horretan, lehenik eta behin, egoera zail honetan hezkuntza-komunitateetatik egindako ahalegina aitortu egin behar dela esanez abiatu zen ekimena, eta, komunitatea osatzen duten subjektuetako bakoitzari berea aitortu behar zaio, gainera.

Ikasleak dira hezkuntza-prozesuaren subjektu eta daukaten hezkuntza-eskubidea era integralean bermatu behar da. Edozein neurri edo erabakiren erdigunean egon behar dute. Eta, pandemiaren testuinguruan, urgentziatzeko neurriak hartu beharra dago, ez soilik ikuspegi "sanitario" hutsekoak, baizik eta, ikasle horien hezkuntza-prozesua bermatuko duten neurri eraginkorrak, ikuspegi integral batetik hartuak.

Bestalde, hezkuntzako langileen bizkar gainean ezin da jarri egoera honi aurre egitea, batetik, ez dagokielako, eta, bestetik, ez zaielako, gainera, behar besteko baliabiderik ematen exijitzen ari zaien ardura betetzeko.

Familien egoera ere aintzat hartu behar da. Hezkuntza/ikastetxeak ez dira gurasoak lanera joatea ahalbidetzeko haur zein nerabeen apar-kalekua. Baina, era berean, ziurtatu egin behar da kontziliazioa posible izango dela (jangelak, orduz kanpoko ekintzak, konfinamendu-kasuetan bajak...).

Posible zen eta da egoera hau beste era batean kudeatzea, posible da ikasleak eta hezkuntza-komunitateak erdigunera ekarri, eta, zentzu komuna oinarri izanda, beste bide batzuk urratzea pandemiaren ondorioz ez dezagun etorkizuna hipotekatu.

Adierazpen taularen puntuak

Hori oinarrian izanda, Hezkuntza Plazara ekimenak aldarrikapen-aula bat osatu eta hezkuntza-komunitateen eskura jarri zuen tokian tokiko hausnarketei zein ekimen mobilizatzaileari bide emanez. Aldarrikapen-aula horrek, gure hezkuntza-sistemek urgentziaz behar dituzten irtenbideak jaso zituen, sentitzen eta bizi ditugun behar eta premiak askatzen eta konpontzen hasteko norabide bat.

Adierazpenak laburbilduz zera jasotzen du:

- baliabide askotarikoak behar



Tokian toki elkarlanean zer bide egin dezakegun ere aztertu behar da, gure indar eta baliabideekin nola elkar zaindu dezakegun ikusi, nola irtenbidea eman zenbait korapilori sortzaile izanez.

ditugula arrakala askotarikoak gainditu eta inklusioa bermatzeko, gehien behar duenari gehiago emanaz;

- haur eta nerabeak zaindu egin behar ditugula eta beraien garapen integrala bermatzeko neurri guztiak ziurtatu;
- curriculumak berrantolatu egin behar direla edukien transmisioan baino gehiago gaitasunen lanketan zentratuz eta ikasleen behar oro eta erritmoak errespetatuz;
- euskararen irakaskuntzan zein erabileran eta euskal kulturaren transmisioan bizi dugun galera eteteko eta euskalduntzea sustatzeko neurriak ezarri behar direla, murgiltze-eredu orokortu eta euskal curriculumaren ezarpenaren norabidean;
- urteetan metodologietan eta berrikuntzan emandako pausoetan ezin dugula atzera egin orain;
- euskarazko aisialdi hezitzailearen garrantzia azpimarratuz, pandemia aurretik zeuden ekimenak gutxienez berreskuratu beharra dagoela;
- eskolak auzoan eta naturan emateko erraztasunak behar direla, osasun zein ikuspegi pedagogiko batetik;
- ikasleen ongizate osoa aintzat hartuz ratioak jaitsi egin behar direla eta, beraz, langile gehiago kontratatu behar dela, prozesu hezitzaileko espazioak ere berrantolatuz;
- jangelak zabalik behar ditugula;
- eta azkenik, hezkuntza-komunitateoi gogoetan eta erabakietan parte hartzeko aukera bermatu behar zaigula.

Azken finean lehentasun kontua da. Pertsonak dira lehentasuna? Hezkuntza lehentasuna da? Hitzetan barik ekintzetan erakutsi behar da hori. Beste modu batean egin behar dira gauzak eta posible dela deritzo Hezkuntza Plazarak.

Bakoitzaren ahalmenen neurria eta guztion koloreekin

Adierazpena zabaldu eta berehala hasi ziren atxikimenduak heltzen, azaroak 6ko aurkezpen agerraldira-ko baziren 122 norbanako (irakasle, guraso, ikasle, langile, zuzendari, artezkaritza kide, lehendakari, herri-tar) eta 11 kolektiboren (ikastetxe, guraso elkarte, artezkaritza kontseilu, klaustro, langile komite, ikasle talde..) atxikimenduak. Ekimenaren asmoa ez zen, berez, sinadura-bilketa bat egitea, baizik eta, tokian toki planteatutako edukien inguruko elkarriketa eta mobilizazioa sustatzea. Halere, agerraldiaren ostean, atxikimendua eman nahi zuten askoren eskaera jaso eta aukera horri ere bide ematea erabaki zen. Eta badoa handituz zerrrenda, abenduaren 1eko mobilizazio egunerako 500dik gora norbanako eta ia 80 kolektibo zein 11 hezkuntza-eragileren atxikimendua jaso zen.

Ekimenak orain arte izan duen irismenari dagokionez ere, uste dugu badagoela ondorioz ateratzerik. Hezkuntza Plazara ekimenak Hego Euskal Herriko lau herrialdeak barnebildu ditu, argi baikenuen egindako irakurketak eta planteatutako aldarrikapenek berdin balio zutela eremu administratiboez gaindi ere. Eta esan behar dugu Tuteratik hasita Otsagabira, Irunetik Enkarrietara, Ezkerraldetik Oionera eta lau hiriburuetatik pasata, herrialde guztietako eskualde ia guztietan egon dela Hezkuntza Plazara aldarria.

Beste aldetik, gure ekimena ikastetxe publiko, ikastola zein herri eskola txikietako kideen bultzadaz sortu da, eta atxikimenduetan zein mobilizazioetan abenduaren 1ean, nabaritu da sareez gaindiko adostasuna ere egindako gogoeta eta aldarrikapenekiko.

Azkenik, babesetan badira irakasleak, langileak, gurasoak, ikasleak zein herritarrak ere, eta hori ezinbestekoa da gure ustez. Badira kolektibo-

ki atxiki diren ikastetxe osoak, guraso elkarteak, zuzendaritza-taldeak, langile guztiak... babes kolektibo hori emateko egin den elkarriketa eta lana ere txalotzekoa da, nola ez.


Abenduaren 1erako deitutako mobilizazio-eguna ere koloretsua izatea nahi genuen, zeren egoera larria izateak ez du esan nahi gauzak aldatzeko eta baldintza zein proposamen berritzaileak sortzeko ilusioa eta grina galdu behar ditugunik, alderantziz. Egun horretan ekimen edota mobilizazio-forma ezberdinez koloreztatu nahi izan genituen gure herri/auzoak. Hala, aukera irekia probestu zuten hezkuntza-komunitateek, gogoeta- eta aldarrikapen-taula txapel gisa ulertu, eta tokian tokiko errealitate zehatzetik aldarrikapen propioen inguruan ere antolatzeko egun hori. Bakoitzak erabaki zuen zer egin nahi edo ahal zuen, tokian toki aukera eta abiapuntu ezberdinak egonik denek balio dutela argi izanik. Guk ideia sorta bat eskaini genuen ekimenerako beste euskarri batzuekin batera. Tokian toki erabaki eta sortu dituzte gero euskarri propioak eta mobilizazio-eredua bera.

Oso bideo eta argazki politak partekatu zituzten gurekin eta sareetan ere bai mobilizazio-egunean bertan.

Aurrera begira jarrita gaude orain. Jarraitu egin behar da dauzkagun gabeziak eta arazoak mahai gainean jarri eta irtenbideak aldarrikatzen. Baina horrekin batera tokian toki elkarlanean zer bide egin dezakegun ere aztertu behar da, gure indar eta baliabideekin nola elkar zaindu dezakegun ikusi, nola eman irtenbidea zenbait korapilori sortzaile izanez, nola bilakatu gure komunitateak ere hezkuntzari buruzko kezka eta aldarrikapenetan partaide.

Hezkuntza-komunitatea bera da indargunea. Hamarkada luzez erakutsi du hezkuntza-komunitateak gure herrian egoera eta baldintza berriak sortzeko, berritzaile izateko, eraikitzeko, aldarrikatze, mobilizatze gaitasuna eta grina badauzkala. Emari horretatik edanda, batzen gaituenetik lan eginez, komunikazioa, elkarriketa eta elkarlanean jardunez badugu indar sobera aurrera egin eta aukera berriak zabaltzeko hezkuntza-eredu berri bati. Bidean gaude.

ARGITALPENAK



IZAROREN IZARRA
Maribel Aiertza - Aitziber Alonso

IBAIZABAL

Txirrista bildumako liburu hau 6 urtetik aurrerako haurrei zuzendua dago. Izarok hondartzan igarotako egun batean, ingurugiroarekiko ezagutza itzela garatuko du. Lehen irakurketetan modu autonomoan irakurtzen hasteko ipuina da; orrialde osoko ilustrazioek testua lagundu eta osatzen dute.



ARRAUTZAN
Emma Lidia Squillari

KALANDRAKA

Hamabi arrautza eta, denak desberdinak, bakoitzean sortzeko zorian dagoen kume bat. Atera dira, baina banaka-banaka desagertzen doaz. Zer ari da gertatzen? Irudiei arreta handia jarrita ulertuko da. Album aldakor, dibertigarri eta zorrotza da: zenbaki-jolas bat, ikusmenarentzako erronka... umorea eta transgresioa lagun.



OZEANOAREN KONKISTA
Haize Othondo

IKAS


Amets haurrak herritarren sinesmenak entzun eta, Lagun txakurrarekin urpeko munstro baten harrapatzeko gogo du, animalia dela frogatzeko. Egia ala ametsa? Haur literaturaren sailean 8 urtetik gorako haurrentzako liburu honetan zientziak, ingurumena eta jakintzak lantzen dira istorioa garatu bitartean.



MUNSTRO TXIKIAK. NESKAOTSOK ILERIK EZ BALU?
Alaine Agirre - Xabier Mendiguren

ELKAR

Bost lagun dira Munstroen Eskolako ikasleak eta haien istorioak kontatzen dira bilduma honetan. Haietako bat Neskaotso da. Barre egiten diote lami- nek, gorputz iletua duela-eta. Lotsaturik, berak ere publizitatean bezalako gorputz ilegabea izatea amestuko du, eta bide guztietatik saiaturiko da depilatu- tzen: aitzur, krema eta laser.



EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAREN UDAL-PARTAIDETZAREN PROPOSAMENA ETA PROTOTIPOA
Euskadiko Eskola Kontseilua

EUSKO JAURLARITZA

Euskadiko Eskola Kontseiluak 2017-20 bitartean jarri zuen helburuetako bat izan zen hezkuntza-esparruan herritarren partaidetza-esperientzia bat diseinatzea, gidatzea eta prototipo bat egitea. Udalek parte hartzeko proiektuaren emaitza jasotzen da.



LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL EREDUAREN BILAKAERA
Askoren artean

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

EAEko Lanbide Heziketaren arrakasta ikusita eta ongi funtzionatu duen eredu dela jakinik, haren ibilbidea, eboluzioa, ezaugarriak eta etengabe-ko eraldaketa-prozesua aztertu dira. Ikastetxeen, enpresen eta instituzioen lankidetzatik abiatuta, kalitatea, ekin- tzaitza, sormena eta nazioartekotzea ardatz dituen eredu da.

PROPOSAMENA

‘Bidaietaz’ antzezlanana

Haurrak migratzaileen bidaide

Haurrek hiru pertsonaia, hiru istorio eta migratzeko hiru arrazoi ezagutuko dituzte Behekolarraine konpainiaren 'Bidaietaz' antzezlanarekin. Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutako obra hau eskola-eremuan eta modu seguruan egiteko pentsatuta dago.



Zerk bultzatzen du pertsona bat migratzera? *Bidaietaz* antzezlanean egiten den hausnarketa bat da horixe; zerk bultzatzen du bat bere jaioterra utzi eta, munduan zehar, beste norabait joatera? Miren Tirapuk sorturiko Behekolarraine konpainiak Lehen Hezkuntzako haurrei migrazioaz gogoeta egiteko parada eskainiko die antzezlan honen bidez.

Bidaietaz obraren sorburuan, Siria-ko errefuxiatuen egoera dago. Miren Tirapu aktoreak, Euskal Hirigune Elkargoaren eskariz obra bat idazteko aukera izan duenean, puri-purian dagoen gai horri heldu nahi izan baitio:

dena galdu eta etxea uztera behartuta dagoen pertsona baten bizipena kontatu nahi izan die haurrei. Baina badira migratzeko arrazoi gehiago ere, Tirapuk berak gertuagotik bizi izan duen bat, esate baterako: “Nik neuk urte asko pasa ditut bueltak ematen, Euskal Herrira duela hamarren bat urte itzuli nintzen, baina desiratzen nago berriro kanpora joan eta, leku berriez gain, jende berria, kultura berria eta ohitura berriak ezagutzeko”. Errealitate desberdinak bilatzea izan liteke, beraz, migratzeko beste arrazoi bat. Ihesaldi baten historia izan liteke migratzaile batena, baina baita bilaketa batena ere. Bi historia

horiek taularatzen ditu *Bidaietaz* antzezlanak, eta, kontrajarriak diruditen bizipen horien artean, migratzeko hirugarren arrazoi bat ere ikusarazi nahi du obrak: genero-identitatea. “Oso homofoboak diren lurraldeetatik ihes egin behar izaten dute pertsona askok, eta beren identitatearen bila eta beren burua aske sentitzeko bilaketagatik egiten duten migrazio hori ere kontatu nahi nuen”, azaldu du autoreak.

Migratzeko hiru arrazoi horiek zehazturik eta pertsonaiak perfilaturik, horiek gorpuztuko zituzten aktoreak bilatu zituen Tirapuk: Oier Guillan eta Iraia Elias buruan izan

zituen hasieratik, eta, Tirapurekin berarekin batera, hirurek osatu dute aktore-taldea. “Behin taldea osatu genuenean, pertsonaiak are gehiago zehaztu genituen, eta generoarekin lotura zuen migrazio-historia gorputz batetik besterako migrazio gisa kontatzea pentsatu genuen; ez lurralde batetik besterako migrazioa, baizik eta *migrazio* kontzeptua gehiago irekitzea erabaki genuen”. Pertsonaia horrekin, zalantzan jarriko dute zer den gizonezko izatea, zer den emakumezko izatea, eta horren atzean dagoen eraikuntza kultural eta ideologikoa kolokan jarriko dute.


Migrazioa eskolan jorratzeko gaurkotasan handiko gai interesgarria izateaz gainera, forma da antzezlan honen beste indargune bat, ezustekoz beteriko antzezlan ibiltaria baita. Ikastetxean ezustean sartuko zaizkie pertsonaia migratzaileak ikasleei, banaka. Izan ere, eskola-eremuan (barruan zein kanpoan) antzezteko pentsatuta dago obra: “Hiru pertsonaiak hiru momentu desberdinetan agertuko gara eszenan, modu horretan hiru ezusteko hartuko dituzte haurrek”. Pertsonaiek laguntza behar dute, eta ikasleek lagunduko diete beren ibilbidea egiten. “Aktoreen eta umeen arteko elkarriketaren bidez egingo du aurrera obrak, eta kale-antzerkiaren itxura hartuko du. Galdera irekien bitartez, ikasleen eta pertsonaien arteko harreman bat sortuko da, eta horrek antzezlan bakoitza berezi bilakatuko du”. Tirapuk zehazten duenez, umeak ez dira ikusle hutsak, baizik eta harremanetan daude pertsonaiekin. “Pertsonaiak laguntza eskatuko die, eta umeek lagundu egingo diote. Bat-batean, bigarren pertsonaia agertuko da, bere historia

kontatuko du, eta umeek ere parte hartuko dute. Ondoren, hirugarren bat...”. Parte-hartze handiena hirugarren pertsonaiaren historian izango dute haurrek, munduan zehar ezagutu dituen pertsonaien oroigarrien kutxa bat baitauka pertsonaia horrek, barruan jantziak, biboteak, betaurrekoak... gordetzen dituena. Pixkanaka, antzezlanaren azken zatiko jardueran, haurrek eurek sortuko dituzte pertsonaiak. “Migrazioa aukeratzat hartzeko gertatzen diren askotariko egoeren aurrean, pentsamendu autonomoa, kritikoa eta enpatia landuz umeek sortzaileak izateko tartea ere izango dute *Bidaietaz* antzezlan ibiltarian”. Haurrek pertsonaiak sortzen dituzten momentuan, ikasleak arte eszenikoetara gerturatzeke borondatea du Behekolarrainek.

Migrazioa lantzeko unitate pedagogikoak

Enpatia lantzen dute haurrek antzezlanarekin. Izan ere, bakarrik dagoen pertsonaiari lagundu behar diote. Haatik, eta pandemiaren aurretik izandako esperientzian ikusi ahal izan zutenaren arabera, enpatia hori ez da beti bat-batean gertatzen pertsonaia migratzailearekin: “Haur batzuek oso goxo hartzen dituzte aurrean dituzten pertsonaiak, baina umeek filtrorik gabe hitz egiten dute, eta guztiek ez dute begirada abegikorra erakusten migratzaileekiko. Ikusten da haurren artean lan bat egin beharra dagoela, oraindik ere, migrazioari buruz”.

Lan pedagogikoa egiteko, hain zuzen ere, eta behin obra amaitu ondoren eskolan migrazioari buruz gogoetan jarraitzeko, dossier pedagogikoa prestatu du Behekolarrainek irakasleentzat. “Badakigu obran



'Bidaietaz' antzezlan

Konpainia: Behekolarraine

Autorea: Miren Tirapu.

Aktoreak: Oier Guillan, Iraia Elias eta Miren Tirapu.

Hartzaileak: Lehen Hezkuntzako ikasleak.

Ezaugarriak: Hiru zatiko antzezlan ibiltaria.

Harremanetarako:

677 638 749

info@behekolarraine.eus

www.behekolarraine.eus

zehar galdera asko egiten dizkiegula haurrei eta pentsatzeko gauza asko planteatzen dizkiegula migrazioari buruz, eta horregatik banatzen diegu irakasleei unitate didaktiko bat antzezlanean zehar ikusi dutenaren inguruan”.

Pandemiaren aurretik estreinatu zuten antzezlan, iragan martxoan, eta aukera izan zuten Lehen Hezkuntzako maila guztietako geletan sartzeko. “Asko aldatzen da obra adinaren arabera —azaldu du Tirapuk—. Adin guztietako ikasleak pasa dira gure eskuetatik, eta ikusi dugu beste indar bat hartzen duela umeek erantzuten dutenean”. Txikienetatik handienetara xehetasunak aldatu arren, oso ongi funtzionatzen duela nabarmendu du egileak.



ATZEKO ATETIK



ESKERRIK ASKO

PAUL BILBAO SARRIA

EUSKALGINTZAREN KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA

Er-raza da, oso, **Hik Hasi** proiektuak Kontseiluaren jardanean izan duen garrantzia azaltzea. Akaso, zaila litzaidake Kontseiluak hezkuntzaren eremuan egin dituen ekarpenak **Hik Hasiren** parte-hartzerik gabe irudikatzea.

Eredugarritzat jo izan dut beti **Hik Hasik** desberdinak helburu baten bueltan batzeko eta lanean jartzeko izan duen gaitasuna. Euskal Herriko hezkuntza-sistema berri euskaldun, demokratiko, berdinzalea eta berritzailea ardatz, eta hori posible dela sinistuta, eragile desberdinak horretan ekarpenak egiten jartzeko erakutsi izan duen kemena izugarria da. Finean, **Hik Hasik** erakutsi digu herri honetan edozer eraikiko badugu, beharrezkoak izango direla esku guzti-guztiak.

Eta zer esan, a zer lasaitasuna eman didan niri! Hezkuntzari buruzko edozein jardun aurrera eraman behar izan dudanean, lehen telefono-deia Aguilera eraikineko bulegora izan da.

Zalapartaka hasi eta lehen erantzuna norberaren urduritasunak baretzeko moduko gomendioa izan dut beti: lasai hartu, egin egingo dugu. Ondoren, aurrera eraman beharreko jarduna norabide egokian jartzeko laguntza eskaini. Eta, hori guztia, irribarrea ahoan. Nola ez du, bada, lasaitasuna ekarriko **Hik Hasi** bezalako erakunde bat ondoan egoteak?

Horrexegatik, hain zuzen, belaunaldi berriak euskalduntzeko Kontseiluaren ekarpenak ezin dira ulertu **Hik Hasi** erdigunean kokatzen ez bada. Eragileak batzeko gaitasuna, adostasunak lortzeko kemena, handik eta hemendik bildutako esperientziak, eta horietan guztietan garrantzitsuenak: konpromisoa. Finean, horixe izan da **Hik Hasi** egitasmoak isurtzen duen beste ezaugarria. Gure herri txiki honetan dena da posible, baldin eta horretan sinisten badugu eta hori egiteko konpromisoa baldin badugu. Hartara, azken hogeita bost urtean garatutako proiektu guztiak horien erakusle dira.

Asko ikasteko dugu zuengandik, lagunok, eta Kontseiluak egun dituen erronketan saiatuko gara zuen moduan jokatzeko. Izan ere, erakutsi duzue herri honen etorkizuna zehazteko denok dugula zer esana eta zer egina, eta elkarrekin eginez gero, errazagoa izango dela hezkuntza ez ezik, herria bera ere eraldatzea. Segurki, Aguilera eraikineko bulegora deitzen hasi beharko dut berriro zuen eskarmen-tua parteka dezazuen.

Urte askoan, **Hik Hasiko** lagunok. Eskerrik asko herri honetako belaunaldi berriak beste balore eta oinarri batzuetan hazi eta hezteko eguneroko egiten duzuen ekarpenarengatik. Eta, bai, lerro hauek idaztean irribarrea jarri zait ahoan Joxe Mari Auzmendi eta Arantza Goibururen irudiak burura etorri zaizkidalako.


Izan direlako zarete, eta zaretelako izango dira. Euskal hezkuntzak behar duen sistemak norabiderik ez du galduko lanean jarraitzen duzuen bitartean. Lasai egon gaitzeko bide onetik eramango duzelako itsasontzia.

euskal eskola publikoa

NIREA
ZUREA
DENONA

aurrematrikula
urtarrilaren 18tik 29ra

www.euskadi.eus/hezkuntza



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



ehbildu

GUE/NGL
THE LEFT
IN THE EUROPEAN PARLIAMENT

NAZIOARTEKO
II. HEZKUNTZA
KONFERENTZIA

EUROPAKO HEZKUNTZA EREDU MUNIZIPALISTAK

URTARRILAK
29/30

ZUZENEAN STREAMING BIDEZ

IZEN EMATEA
hezkuntzakonferentzia.ehbildu.eus